

ARIMAREN ZUZENBIDEA



DONOSTI'AR GABRIEL AITA KAPUTXINOAK
EGIÑA TA
IRAIZOZ'TAR POLIKARPO AITA KAPUTXINOAK
EUSKERATUA



ARIMAREN ZUZENBIDEA



ARIMAREN ZUZENBIDEA

Arimaren bizitzan zuzen
ibiltzeko ta irauteko aolku
edo erakutsiak, Kristori
benetan jafaiki nai dioten
kristaudentzat — — —

Donosti'ar Gabriel Aita Kaputxinoak eglia

ta

Iraizoz'tar Polikarpo Aita Kaputxinoak

euskeratua



Nihil obstat

Fr. Fidelis a Torrano
Censor

Imprimi Potest

Pamplonae, 4 Januarii 1952
Fr. Seraphinus a Tolosa
Min. Prov.

Nihil obstat

Dr. Blasius Fagoaga
Censor

Imprimi Potest

Pamplonae, 4 Aprilis 1952
Dr. Antonius Ona
Vicarius Generalis

AUREKO ITZA

Kristau maitea:

Liburutxo au zertako idatzi dedan? Ori jakiteko, aski dezu ofen afealdean ipifii ditudan itz auek irakurtzea. *Arimaren bizitzan zuzen ibiltzeko ta irauteko aolku edo erakutsiak, Kristori benetan jañaike nai dioten kristautentzat.*

Begira: gure arimaren bizitza ta gorputzaren bizitza orobatsu dira; gorputza pixkabanaka aziaz eta aundituaz joaten dan bezala, gure arima ere olaxe osotzen ta santutzen da.

Gu ez gera aingeruen antzeko. Jainkoak oiek ezerezetik sortu zituenean, bereala ta batabatean santu egin zituen, bakoitzari zegokion santutasun-mailla eman zion, aingeruak ez tira pixkabana santutu. Nai izan balu, Jainkoak ori bera egin zezaken gurekin; gure arimari ere, bizitzen asteen, eman zezaiokean arentzat aurfetik berezirik zeukan santutasun-mailla, guk

nekerik bat ere artu gabe. Etzuen ordea ori nai izan; aitzitik erabaki du guk geren aldetik saiatu ta alegiña egin bear degula geren burua santutzen eta arima-bizitzan auferatzen ta azitzen.

«*Beri zaitetze zuen gogoan*» esan digu Paulo apostolu santuak (Eph. 4, 23).

«*Diran gauzak izaten asi baiño lenagotik Jainkoak aukeratu gaitu Kristogan, bere aurrean santu eta kutsugabe izateko*» (Eph. 1, 4-6), esaten zien apostolu berak Efeso'ko kristauai.

«*Baiña egiatzko bidea bilatu egin bear.* Kristau askok eztute bide ori aurkitu, santutasuna zertan dagoen ere ezakite. Jainkoak gu santutzeko berezi duen bidea ezakite edo baztefera utzi dute; eta gero, berak asmatutako olako edo alako gauzetan jartzen dute santutasuna, iñoren laguntza gabe beren oldez ibili nai dute, beren burutik sortutako asmo edo gogorapen batzuei itsasten zaizkie; eta ola bide zuzenetik saiestu egiten dira.

Santu izan gaitzen bai, baiña Jainkoak nai duen bezala, ez guri gogoak ematen digun bezala.

Arimaren zuzenbidea

Nondik jo eztakitela dabilzan arima oietxek biñatu bear dute, zer kostako ere, zuzenbidea erakusteko norbait.

Jesu Kristo gure jaunak, emen lufean Jainkoaren jaurgo edo ekeinua ipifii nai zuenean, zer egin zuen? Len-lenik, zenbait lagun-sail, amabi apostoluak eta irurogeitamabi ikasleak aukeratu, eskolatu ta egokitu zituen; gero oiek, Espiritu Santuak eragifiiik, Aren lana aufera eraman ta kristau lagunai zeruko bidea erakutsi zezaieten.

Eginbear berbera dago bada gure egun auetan ere: Giza-sail guzietan katoliko sutsu bioztunak egokitu bear dira, eta oiek apaizai lagundu bear diete beste kristauai Jainkoaren legea erakusten. Eta olako kristau autak edo aukerakoak egokitzeke arimaren zuzenbidea bear da, ori ezin uka diteke.

Jesus jaio-befiari agur egitera etofi ziran iru Efege aiek zer egin zuten izafa itzaltzean? Jerusalem'era joan, eta an bizi ziran judo-apaiz ta legegizonai galdetu, non jaiotzekoa zan Kristo. Eta aien bidez eman zien Jainkoak bear zuten argitasuna, aien bidez aurkitu zuten biñatzen zutena: Jesu Kristo. Bereorixe egin

bear degu bada guk ere gure arima-bizitzako ilun-aldietan (eta maiz izaten dira olako ilun-aldiak eta nondik jo eztakigula ibiltzek).

Eta kristauak norengana joko dute? Jakina da, Eliza Amagana, Kristo'ren ordezkongana, apaizengana, gure Jaunaren itz aiek gogoan edukiz: «*Zuei entzuten dizuenak neri entzuten dit*» (Lc. 10, 16).

Eta Saulok Damasko'rako bidean bezala, guk ere galdegin bear diogu Jainkoari: «*Jauna, zer nai dezu nik egitea?*» (Act. 9, 6). Begira, ari ere Jainkoak berak berez ta bitarterik gabe erakutsi zezafozkean bere asmoak ta zer nai zuen ark egitea; baiña etzuen ola egin, ori ikastera beste gizon batengana bidali zuen. Zer esan zion bada? «*Zoaz, sar zaite uri ortara, or esango dizute zer egin bear dezun*» (Act. 9, 6). Orixe berorixe esaten digu guri ere gure arimaren zuzentzaile edo biderakusleai buruz: «*Zoaz olako edo alako apaiz ofengana, ofek esango dizu nik zer nai dedan zutzaz*».

Zuzenbide-araua

Arimaren zuzentzea edo biderakustea ofen beafeko bada, nork-edo-nork galde au egin lezake:

Arimari bidea erakusteko arau edo zuzenbide bat, laburra, eraza, xelala, baiña sendo eta osoa ba ote da?

Kristau maitea, orixe esan nai dizut liburu-txo ontan. Emen eztizut gai ortazko jardun-aldi edo erakuts-aldi oso-oso bat eskeintzen, arimen zuzentzeari dagozkan txetasun guziak ez ditut emango, ortarako badira beste libururik asko. Nik zenbait aolku ta burubide eman besterik eztet egingo.

Orain ebaki nai dizudan bide au oso zelai da; eta nere ustez, Jainkoaren laguntzarekin ta Espiritu Santuaren argiarekin, zure arima-bizitzan on egingo dizu.

Ona emen zer egin dedan: Arimari bidea erakusteko arau edo zuzenbide labur, efaz, xelal, baiña nere ustez sendo eta oso bat burutan artu, eta gero maisu jakintsuenen iritzi, uste, gogorapen ta irakatsiak eskumen batean bildu, eta ori zure eskuetan ipifii, zure arimari on egiteko asmo onenarekin.

Nik eztet ezer andirik egin: Beste maisuen iritzi, gogorapen ta ikasbide oiek bildu, zuzendu ta sailkatu, eta lore-sorta bat iduri zuri eskeifii, ofekin zure arimaren loradia apain dezazun.

Geldi-geldi irakufi ta gogoan iraul zazu.
Zenbait gogoeta bein ta betiz esateko ez naiz
kupide, ola buruan barnago josi dakizkitzun.
Liburutxo au irakurtzean ezbaien bat ger-
tutzen bazaitzu, zure arimaren zuzentzaileak
emango dizu argitasuna.



GURE SANTU-EGITEA

Jainkoak duen asmoa

Jainkoaren grazia

Gogora dezagun len-lenik Jainkoak gu santu-egiteko duen asmoa. Guziok bekatu egin degu, ori egia da. Adam'en bekatuak Jainkoaren asmoa naspilatu du. Giza-enda edo afazaren buru zan Adam, eta arek Jainko-legea austean galdu zuen beretzat eta bere ondorengoentzat Jainko-bizitza eta Jainkoak eskeintzen zizkion ondasunen jabe izateko eskubidea. Jatorfizko bekatu ofek bezala, geuren bekatuak ere Jainkoaren grazia galarazten digute.

Aitarengana biurtzeko, santutasun-bidean azkar ibiltzeko bear degun indar'a non aurkituko degu? Gure siñesteak irakasten digunez, indar ori grazian dago; eta grazia ori Kristok, gure zofen ordaintzeko ta gure beferosteko egin zituen lanekin, guretzat irabazi du.

Jesu Kristok bai, beste gizonek ezin eman zuen bear ainbateko ordaiña ez beretzat, ez, bestentzat. Jainko-Semeak gure gizon-izatea ta gure bekatua bere gain artu zituen; eta, Paulo santuak dionez, naiz Arek bekatu bat ere ezagutzen etzuen, alere Jainkoak Kristo bekatua bera balitz bezala artu zuen (2 Cor. 5, 21).

Jesu Kristok bada, bere Nekaldi ta Eriotza-rekin, irabazi dizkigu barkamena, zerurako eskubidea ta santu-egitea; ots, *Kristo da gure santu-egitearen irabazle.*

Ofegatik, gure bekatuak gora-bera, oso aberats gera Jesu Kristoren odolari esker, bai, Arek guzientzat eta gutako bakoitzarentzat ixuri zuen odol guziz baliotsu aren irabaziai esker: *«Burua ta gorputz-aldeak (Kristo ta gu) gizaki mistiko baten antzeko dira, eta geroztik Kristoren zor-ordaintzea kristau guziona da, guziok Aren gorputz-alderdi baikera»* (S. Thomas, Summa theol.).

Oi noizpait ere etsi-etsiko bagendu, Jesu Kristo gabe ezer eztezakegula, Arekin befiz guzia badezakegula!

Oso makal, oso bekatari gera... baiña begira zer egiten duten Jainkoaren izeneko edo eskaleak: Oiek eztira beren zarpazar ta min ta

zauriak erakusteko lotsa izaten, agiri-agirian daramazkite, ola jendea efuki-arazteko. Be-reorixe egin bear degu bada guk ere gure bekalu ta ezerezkeri ta kaxkaferiekin.

Ortxe daukagu itufia, Jesu Kristo gure Jau-na; itufi ortatik sortzen da grazia, *Jainkoaren emaitza, bañukoa, agiri eztana, arimari itsa-tsia, egiazkoa, benetakoa, naiz begiz ikusten ezta; oñek apaintzen du arima, edertasunak aurpegia, jakintasunak adimena, kemen ta zintzotasunak biotza apaintzen duen bezala.*

Grazia ori Kristogandik datorkigu: «*Nik emango dedan ura ituri bizi egingo da, betiko bizitzaraiño jauzten dan ituri*» (Io. 4, 14).

Ona emen Jainkoaren emaitza, Jainkoaren ura, lufetik gorakoa, zerukoa. Itzegin ote dite-ke argiago grazia santugafiaz? Eztel emen azalduko zer dan grazia santugafia eta zer dan aldian-aldiko grazia; liburutxo au esku artean daukatenak jakin bear dute ori nai-ta-ez.

Eta zein dira graziaren ekoizpen edo on-doreak? Graziak gure arimari izatez-gorako bitzta, berari berez eztagokion bitzta ematen dio, santu ta Jainkoaren adiskide egiten du. Ots, *graziak Jainkoaren ume, Jesu Kristoren senide, Mariaren seme-alaba, Espiritu San-*

tuaren bizitoki, Irutasun Santuaren eliza, zeruaren jabegai egiten gaitu.

Jainko-antzeko lanak

Jainkoa da biziaren itufi ta itsaso. Bizi ori, *Argia ta Maitatzea* baita, edatu ta zabaldu ta eman naian dago. Eta Jainkoak, efukiz beterik, beti-betidanik bere bizitza santu zorioneko ori gu guziori banatzea erabaki zuen.

Eta au graziaren bidez gertatzen da. Ofe-kin Jainkoak ematen dio gure arimari Berak bere burua ezagutzen duen bezala ezagutzeko ta maitatzen duen bezala maitatzeko ta geroztik Jainkoaren bizitza beraz bizitzeko egokitasun edo eskubidea. Jainkoak bere umetzat artzen gaitu; auxe ezkutu afigafial

Ofe-gatik, Tomas santuak dionez, graziak gu baitan *«Jainko-izatearen iduri bat, parte-artze bat»* sortzen du.

Eta zertan dago Jainko-izatean parte-artze ori? Grazia santugafiak gure arimari Jainkota-suna ematen diola adiarazi nai ote degu itz olekin? Ez orixe, orduan gu ere Jainko izango giflake ta. Zer gertatzen da bada? Graziak arimari izatez-gorako bizi bat ematen dio; baiña bizi ori ezta Jainkoaren bizitza bera, ezta arekin

berdin; Jainko-bizitzaren *antzeko* da, ots, *graziak ez gaitu Jainko egiten, baiña bai Jainko-iduri.*

Eta *parte-artze* ori arima-bizitzaren, izatez-gorako bizitzaren, Jainko-bizitzaren oiñafi ta astea baita, bera ere gauza bizia bear da; eta zer da bizi izatea, zer da bizitzea?

Gurezat bizitzea auxe da: *Nor bere bafuko indañez igitzea edo mugitzea.* Bafuko indar ofek eragiten digu, bultzatzen gaitu geren burua gero ta geiago bikaintzera, osotzera, betegitera. Begira bizi diran izaki guziak nola azitzen ta anditzen diran neufi bateraiño... Bereorixe gertatzen da arima-bizitzan ere; emen ere bada bafuko indar ori, eta ofek igiarazten gaitu, eragiten dizkigu ez Jainko-lanak, baiña bai Jainko-iduriak, gure izateari eztagozkion egintzak; eta egintza oiek zertara jotzen dute? oiekin zer irixten degu? Jainkoa noizpait guretzea ta Artaz gozatzea, Berak bere burua eza-gutzen da bere bikaintasunez gozatzen dan bezala.

Oñela graziaren bidez nolazpait Jainko egiten gera; ez Jainkoarekin berdin, baiña Jainkoaren antzeko. Ofegalik esan zien gure Jaunak juduai: «Ez al dago zuen legean idatzi-

rik: *Nik esan det: Jainko zerate?*» (Io. 10, 34).

Auxe da izalez-gorako bizitzaren edatze edo zabaltzea, ezkutu edo misterio afigafia, Paulo santuak ainbeste aldiz erakutsi ta Kristoren ezkutua deitzen zuena: «*Auñeko mendetan ta gizaldietan gorderik egon ta orain santuak erazagutu edo agertu zaien ezkutua, ots, Kristoren ezkutua gu baitan*» (Col. 1, 26).

Jainkoaren ume

Ikusagun nola gertatzen dan ezkutu afigafi ori. Begira emen lufean diran izakien mailak: Lenengo mailan *ariak*, oiek eztira bizi, eztute beren baitan bizitzeko ta ezer egiteko indafik, eztira ezitzen, ez edertzen, ez bikaintzen, beti berdin daude.—Ufengo mailan *landareak*, oiek bai bizi dira, azitzen dira, bakoitzari dagokion neufiraiño anditzen dira, frutua ematen dute. Baiña ala ere azitzeko indar orixe besterik eztute, nabaritu edo sentitu ez dute egiten.—Irugafen mailan *abereak*, oiek nabaritu ere egiten dute, suma badute.—Ufena dator *gizona*, au maila gorago batean dago. Onek badu ezaumen edo afazola ta aukeramena; baiña alere arimarekin batean gorputza ere badu, lufez ta espirituz osotua da.—Ofen gaiñetik

aingeruak, espiritu utsak, Jainkoak egin dituen izaki guzien gorenean daude.—Azkenik, iñon diran bizitza guzien gaiñetik dago *Jainko-bizitza*, *bizitza ez-sortua*, *nai-ta-naiezkoa*, *bere baitatik dirauena*. *Jainkoak bere bizitza orixe eman nai digu, eta oñen parte-artzean dago gure santutasuna*.

Graziaren bidez Jainko-bizitza ori iritxi ezkerok, *Jainkoaren azkazi* edo afazako egin gera, ori nai-ta-naiez bear baita Jainkoak bere umetzat artuko bagaitu; emen lufean ere iñork eztezake kristau ezlanik legez seme edo alabatza artu.

Eta egiazki, bere nai uts-utsez baiña maitez heterik, Jainkoak aurretik berezi gaitu ez afazoidun gizon izateko bakarik, ta bai *bere ume izateko* ere, Paulo santuak dionez: «*Aurretik begiz jo gaitu Jesu Kristoren hidez bere umetzat gu artzeko*» (Eph. 1. 5). Geroztik, Jainkoa ben-benetan deitu dezakegu ez bakarik *Aita*, bai *gure Aita* ere; Jesusen anai-afeba gera, eta Arekin batean esan dezakegu: *Gure Aita*. Graziak Jainkoaren ume egiten gaitu beraz.

Jesu Kristoren senide

Ortara ezkerok, graziaz Jainkoaren ume ba-

gera, baita Jesu Kristoren senide ere; *au bere-
-berez da Jainkoaren seme, Jainkoagandik
sortu dalako; gu beñiz Jainkoak bere seme
edo alabatzat artu gaituelako.*

Gaiñera, umetzat-atrze au emen lufean gizo-
nen artean legez egiten dana baiño betegiñago,
bikaiñago da. Emen gizon batek mutiko afotz
bat semetzat artu badu, andik aufera bere se-
metzat dauka, bere izena ematen dio, bere on-
dasunen jabe uzten du; baiña ala ere bizia eztio
eman, bere odola eztio eman, bere seme-izatea
eztio eman. Jainkoak beñiz eztigu ume-izena ta
ume-eskubide bat edo beste bakafik ematen,
ez; Jainkoak bere bizitzan ta bere izatean
egiazki parte-afarazten digu, nolazpait Jainko
egiten gaitu.

Geroztik, Jesu Kristo ziñez ta benetan gure
anai al da? Bai, alaxe da egiazki. Ori gauza
edefa, zoragafia, ezin-siñetsia, amets bat diru-
diela? Bai noski; eta ala ere ori egia utsa da,
gertatu da, ezta amets edo liñura, ezta guk
asmatua (Arami, Vivre).

Andre Mariren seme-alabak

Eta ortik beste egia bat sortzen da: Grazia-
ren bidez Jesu Kristoren senide geran ezkeru,

Andre Mari gure Ama deitzeko eskubidea badegu, bai, Jesu Kristok berak ainbat eskubide. Auxe egi pozgafia! Kristoren Ama Mari orobat gure Ama al da beraz? Bai. Zergatik? Grazia santugafiak Kristoren senide egin gaituelako; geroztik gure Anai ofen Ama gure Ama da. Kristo da gure Anai nausia, gu aren anai-afeba gazteak.

Andre Mari gure Ama al da? Bai. Zergatik? Graziak Kristoren gorputz-alderdi egin gaituelako. Kristo osoa, Kristoren gorputz mistikoa bi gauzez osotzen da: Buruaz eta gorputz-alderdiez. Kristo, aragi ta odolezko Kristo ura da Burua, ta beste kristauok gera alderdiak. Eta Mari Buruaren Ama bada, baita alderdien Ama ere.

«Amak, dio Luis Maria Grignon de Montfort santuak, eztu burua gorputzik gabe jaioarazten, ezta alderdiak gorputzik gabe ere; ori izugafikeria litzake».

Jainkozko bizitza

Ez, Jainkoak gu bere umetzat-artze ori ezta izen utsa, esaten duena egin ere egiten du; grazilaren bidez Jainko-izatean *parte-ematen* digu egiaz eta zifiez, eta oferi esker gure santutasuna Jainkoaren grazian dago.

Ain zuzen ere ofegatik deitzen da *grazia santugaria*, gu santu egiten gaituelako; eta ofela egia ateratzen dira arako Jesu Kristoren itz aiek: «*Ni matsondoa naiz, zuek matsadafak*» (lo. 15, 1). Gogoan eduki: Matsondoak ta matsadafak bizitza bat bera dute, ez tute bizitza bana; matsadafa ondotik ebaki ezkerro ezin bizi, il egiten da.

Eta Jainkoaren grazia eragilea baita, gauza ila ez baiña bizia ta bizinaia baita, berdin egiten da basarbi-aziarekin, matsondoarekin, gorputzaren buruarekin. Ofen bidez, Jainkoak bere umetzat artu gaituen guziok, Jainko-Gizonarekin grazia santugafiaren lokafiaz loturik, aren Gizontasun santuaren luzapen bat bezala gera, Aren gorputz mistikoa, gorputz egiazko ta bakafa: Eliza santu, bakar, katoliko, apostolutar ta efomakoa (Mercier Kard., *La vie intérieure*).

Berdintza batek zerbait argi emango digu esku artean darabilgun ezkutu ontan, Jainko-bizitzan parte-artze ontan: Ofa or burni-puska bat, ori berez otz, ilun, gogor da. Baiña sar zazu sutegian, eta an gori-goriturik, dizdizari biguin bero biurtzen da; suaren *tasun* guziak (argi, bero, biguin-tasuna) artu ditu, burnia

dolarik sua dirudi; sutzat daukagu, naiz sua dirudien burnia besterik eztan.

Ori gertatzen da gure arimetan: Grazia santugafiaren bitartez, Jainkoaren *tasunak* artu ditugun gizakiak gera, eta *tasun* olek burni goriaren antzeko dira. Nola? Jainkoaren bizitza *Argia* ta *Maitatzea* baita, Arek bere bizitza ortan parte-ematen digunean, ematen dizkigu alaber iru *tasun* auk: *Argitasuna* siñestearekin, *biguintasuna* itxaropenarekin, *berotasuna* maitatzearekin. Eta oieri esker, siñestearekin Jainkoa lur ontan ezagutzen degu Berak bere burua ezagutzen duen bezala, maitatzearekin maite degu Berak bere burua maite duen bezala, ta itxaropenarekin gure uste osoa Arengan ipintzen degu.

Zer gertatzen da gizonagan bere izatezko legez? Gizonak gizon izateko bear ditu zenbait gaitasun edo eskubide (naimena, adimena, nabaimena); oiekin gizon-izateari dagozkan lanak egin ditzake, oiek gabe gizona ez litzake gizon oso ta betegiña edo egin-egiña.—Berdin gertatzen da izatez-gorako bizitzan ere.

Ona emen nola: Grazia gure arimara ixurtzen danean, arek ematen digu *zerbait beririk*, «izaki befia» deitzen du Paulo santuak zerbait

ori (2 Cor. 5, 17), ots, Jainkoaren ume egiten gaitu. Baiña izakera befi ofekin, Jainkoaren ume-izate ofekin batean, graziak ornitzen dizkio arimari gaitasun edo eskubide befiak ere, izatez-gorako onbide, onbide barnera-ixurlak (virtutes infusae) derizkienak; oiek gabe gizona ezin izan Jainkoaren ume egiazko, oieri esker befiz guk egin ditzakegu gizon-izate utsari eztagozkion lanak, gizonak berezkoak ezituen lanak, burura ditzakegu izatez-gorako ta Jainkozko egintzak.

Jainkozko onbide edo birtute oiek noizpait osofara aldatuko dira zeruan: sifiestea zeruko argi (lumen gloriae) edo Jainkoa begiz-begi ikuste biurtuko da; itxaropena galdu egingo da, itxaroten genduen onaz jabetu baikera ura geroz galtzeko beldufik bat ere gabe; Jainko-maitatzea befiz arimaren gozamen oso-oso biurtuko da, emen lufean maite zuena bein ta betiko beretu duen ondoan.

Zertan dira beraz alkafen antzeko graziatzko bizitza ta Jainkoaren bizitza? Jainkoaren bere-berezko bizitza bere burua ezagutu eta neufigabe maitatzeant dago: Ezagutzea (Argia) ta Maitatzea. Guk ere noizpait zeruan Jainkoaren bizitza ber-berori izango degu: Jainkoa ezagu-

tuko degu Berak bere burua ezagutzen duen bezala ta maiteko degu Berak bere burua maite duen bezala, ots, Jainkoaren bizitza bera, neufiz bada ere.

Baiña emen lufean bizi geran arte ere, grazia santugafiari esker, Jainko-bizitza ortan parte-artzen degu, zeruan bezin osotara ezpada ere. Bai, grazia ofi esker, kristaua emen lufean gai egiten da Jainkoa beste bizian ezagutzeko Arek bere burua ezagutzen duen bezala, ta maitatzeko Arek bere burua maite duen bezala ta izan dezake Aren bizitza bera. Ofela, artean gizon uts zana, gizon antzera gogoratzen ta maitatzen ta lan egiten zuen kristauak, andik aufera gizon-izatea utzi gabe Jainkoak bezalatsu gogoratu ta maitatu ta lan egingo du.

Berez grazia ta zeruko ospe edo gloria gauza bat bera dira. Grazia geroko ospearen astea da; grazia azia da, ospea beñiz azi ortatik sortu dan zuaitza. Zeruko ospea lufeko graziaren edatze edo luzapena baizik ezta.

Santutasuna

Jainkoak ola isatez-gorako mailan ipiñi gaituen ezkeru, gauza guzien gaiñetik geren buruen santutzea bilatu bear degu, ortara jo

bear degu, ortara egin bear degu alegin guzia.

«Santu ta kutsugabe izateko berexi gaitu Jainkoak» esan digu Paulo santuak. Baiña guk santu-izatea eztegu generazkoa; Jainkoak egin-dako gauzak geran ezkeru, gure santutasuna Jainkoarenean parte-artzea da, besterik ez; jainkoa bai bere-berez santua da, santutasuna bera.

Eta zertan dago edo zer da Jainkoaren santutasuna? Len lenik, utsik eta akatsik eta itzalik bat ere ez izatean, ezta dan txikiena ere.

Gero, Jainkoaren santutasuna auxe da: «Jainkoa bera dan On baztergabeari beti-betiko ta ezin-bestean loturik ta itsatsirik egotea, On baztergabe ofekin osotara naasi ta bat-egin arte» (C. Marmion, Jésus Christ, vie de l'âme).

Eta Jainko guziz jakintsuak ondo baitaki Bera on utsa dala, osotara betegin ta bikaiña dala, bear-beaitezko izaki bakafa Bera dala, ofegatik gauza guziak bere buruagana ta bere ospera zuzentzen ditu, nai du guziak Beragana jo dezaten, guziak Berari ospe eman dezaioten.

Ortara ezkeru, Jainkoak ezin-bestean nai du, iñon diran izaki guziak bere ospe edo gloria ager dezaten; eta ain zuzen ere *ortantxe dago gure santutasuna*. Geroztik, gure bizitza

oso osoa Jainkoa ospatzeko ta goratzeko kantu bat, bein ere ixiltzen ezian kantu bat bear litzake: *Ospea Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Lenbizian zan bezala orain ta beti ta menden mende guzietan. Ala-biz.*

Kristoren bidez, Kristorekin, Kristo baitan ematen dizugu zuri, Jainko Aita guzieldun oñeri, dedu ta ospe oro Espiritu Santuarekin batean. Ala-biz.

Jainkoaren eliza

«Ifiorik maite banau, nere Aitak ura maiteko du ta arengana etofiko gera eta aren baitan egotez egongo» (Io. 14, 23).

Jesusek bere azken aparian esan zituen itz oiek, eta oietxek izango dira egun-ta-beti grazian bizi diran arimen pozgafi.

«Arengana etofiko gera»; nor ta? Aita ta Semea ta Espiritu Santua, iru Persona ta Jainko bat bakafa.

«Noiz arte egongo dira guban?» Guk bekatu egifnez arimatik aterazi arte.

Bai, dio Mercier Kardinaliak, Jesu Kristo gure Jaunak, gizon dan aldetik, gure gizon-izatea Irutasun Santuaren alizo edo magaleraifio igo-arazi du; eta Jainko dan aldetik

befiz, Irutasun Santua guganaiño jetxi-arazi du.

Bereorixe adiarazten digute Paulo santua-ren itz aiek: «Ez al dakizue Jainkoaren eliza zeratela, eta Espiritu Santua zuengan bizi dala?» (1 Cor. 3, 16).

Ofegatik Eliza Ama santuak Pentekoste egunean izen auxe ematen dio Espiritu Santuari: *Arimaren etxelagun gozo*. Egiazki, Espiritu Santuak guziz atsegin du kristau onaren ariman bizitzea.

Eta ez Espiritu Santuak bakafik, baita beste Jainko-Personak ere, bat dagoen tokian besteak ere an baitaude.

Ortik zer atera bear degu? Espiritu Santuari jaiera andia izan bear diogula; eta ez aldar-teka, noizean-beinka, artu-utzika bakafik, ez; betiko, etengabeko jaiera, egunoroko ta bizi guziko jaiera, eta jaiera ori auxe besterik ezta izango: Espiritu Santuarekin bizitzea.

Alde beraz gugandik bekatu ilgafi edo laffa! «Espiritua ez gero itzali» (1 Thes. 5, 19) bekatu ilgafiaz.

Alde gugandik bekatu arñiak erel: «Ez gero Espirituari naigaberik eman» (Eph. 4, 30); alde beraz gugandik epelkeria, bekatu arñiak nork

bere gogoz ta jakiniaren gainean egiteko efaztasuna; epelkeri ofek graziaren bizitza gudan argaldu ta Jainko-maitatzea oztu egiten du.

Olaxe bizi da gu baitan Espiritu Santua, orixe burutan artu ta gogoan eduki bear degu beti.

Zeruaren jabegai

Kristo gogoan eduki bear degu, Aren bizitza gurearekin naasiaz ta bat-egitiaz.

Kristoren iru bizitza ezagutzen ditugu: lufean ogeitamairu urtez egin zuena, orain alda-rean egiten duen bizitza miragafia ta zeruko bizitza ospetsua.

Baiañ Arek badu oraindik beste bizitza ez-ezagunago bat, bizitza ezkutu edo mistikoa. Kristorekin gorputz bat egiñik gaude: *«Kristo Elizaren Burua da ta bere gorputzaren Salbatzailea»* (Eph. 5, 23).

Zein degu zeruratzeko bidea? Kristorekin loturik egotea, Aren gorputz mistiko ortan sarturik egotea.

Zer ateratzen da ortik? Kristoren gorputz-alde geran ezkerro, gu Arengan gaude, Arengan bizi gera, Arekin piztu ta Arekin biziko ta efege izango gera zeruan; guk daukagun gra-

ziazko bizi ori Jainkoaren bizitzan eta Aren izate il-eziñean parte-artze egiazkoa da. Il ondoan befiz piztuko gera; zergatik? Kristo piztu zan; eta Ura Burua ta gu gorputz-aldeak geran ezkeru, Burua piztu bazan, alderdiak ere piztuko dira arekin batean.

«Kristok era-befituko du gure gorputz kaxkar au, bere gorputz edefaren antzeko egiñik» (Phil. 3, 21).

Jainkoaren grazian il ezkeru, zerurako gera; zergatik? Kristo gure Burua ara igo zan; eta Burua ezin igo alderdiak gabe. Zergatik zerurako gera? Graziari esker, Jainkoa gure Aita dalako ta Kristo gure Anai: «*Jainkoaren ume bagera, baita aren jabegai ere; Jainkoaren jabegai, Kristoren jabelagun*» (Rom. 8, 17).

Zeruan gure zoriona oso-oso izango da, itzalik bat ere gabe. Doatsu izango gera Jainkoa begiz-begi ikusiak. Bitarterik gabe, aurpegiz-aurpegi, Bera dan bezala ikusiko degu an Jainkoa; ez luferko gauzen bitartez, ezta ere sifnestearen ilunben artetik, ezta ere gure adimenaren argiarekin, baiña bai *zeruko argia* deritzan argi berezi batekin; argi ofek Jainkoaren ikusteko gauza egingo gaitu.

Nola gerfatuko da ori? Ona emen zer dion

Salesko Frantzisko santuak: Guk emen lufean gauza bat ikustean, gauza ori ezta gure begiekin bat-egiten, ezta gure begietara sartzen, gauza ofen izaizun edo iduri bat baizik eztago gure begietan; ots, gauzaren iduria, ez gauza bera.

Bereolaxe, gure adimenaz zerbait ezagutzean, ezagutzen degun gauza ori ezta gure adimenarekin bitarterik gabe bat-egiten, ezta gure burura sartzen; *adimeneko izaizun* edo *iduria* deritzan baten bidez irixten da gure adimenera.

Zeruan ere olatsu ikusiko ote degu Jainkoa? Ez, an ez; an Jainkoa berbera, bitarterik gabe, batuko da gure adimenarekin, ontara sartuko da, onekin alkartuko da. Oi nola aseko dan gure gogoan, gure ezagun-gai ta maita-gai gorenaz jabeturik, arekin bat-egitiki!

Zeruan Jainkoa bera degu arimen azkufi edo janari; ori da arako *zeruko ogi*, Jesu Kristok erakutsi ta eskatzeko esan zigun ura.

Orixe izango da gure ondare edo erorki edo senipartea, gure zerua; zerua graziaren jafai-pena baizik ezta. Zeruko ospea emen lufean izan degun graziaren edatze edo zabaltzea besterik ezta izango. Kristau askok, bai Jain-

koaren grazian bizi diran askok ere, bakan ta gutxitan gogoratzen dute egia pozgafi au.

Graziako bizia ta zeruko bizia bat bera dira: Jainkoa.

Kristaua, pozkaria zaite orain *daukazun zerua gogoratuz*, eta zure arima bizkor zazu *etortzeko dan zerua gogoratuz*.



IRU SANTUTASUN-MAILAK

Jarduten ari geran arima-bizitza ontan iru maila ta iru bide berexi izan oi dira ta guk ere ola egingo degu. Iru maila: *Asiberiak, aurera-tuak, betegiak* (incipientes, proficientes, perfecti); iru bide: *garbitzeko bidea, argitzeko bidea, bat-egiteko bidca* (via purgativa, illuminativa, unitiva).

Gure arimaren bizitza gorputzaren bizitza bezalatsu azitzen ta auferatzen da. Gorputzak iru adin edo aro baditu: *Aurzaroa, gastezaroa, gizonzaroa*. Edozein langintza edo bizi-bidetan ere iru maila badira: *Ikastun, ofiziale, maisu*.

Baiañ auxe gogoan eduki: Iru bide oiek ez tira alkañengandik bereziak, iñoiz alkar ukitu gabe alkañen parean dijoazenak, ez; *bide bat beraren zati* dira, eta batetik bestera igarotzea ezta bat-batean ta nabaritzeko eran egiten.

Gizonaren adiñak

Iru santutasun-maila oiek eta arimaren iru bideak nolatsu diran adiarazteko, oso egoki dira gizonaren adiñak edo aroak.

Asibeñiak edo *garbitzeko bidean dabilzenak* arima-bizitzan ume dira; eta geroztik, aurfak bezala, buruarin, aldakor, kasketatsu. Oien eginkizun nausia arimaren garbitzea da; kendu bear dituzte arimak onbidean aurkitzen dituen zoztor ta beaztopoak, ots, bekatuak, griña makufak, luferko zalekerien naspilak. Beren arimak ola garbitzen ari diralako, garbitzeko bidean daudela esaten degu.

Auferatuak arima-bizitzan gazte edo mofosko dira, eta argatik bioztun, sutsu, zirt-edo-zarteko. Zeru-bideko oztopo lafienak (bekatuak, oitura txafak, griña gaiztoak) aienatu ondoan, orain oien eginkizun nausia auxe da: Jesu Kristori jafaikiaz, Jesu Kristoren antzeko izanaz, onbideak berenganatzea. Guzi ofengatik, argitzeko bidean dabilzala esaten degu.

Azkenik, *betegiñak* edo oso onak, gizon egin-egifien antzera, zuur umo iraunkor dira; beren *goraberetaz asturik*, Jainkoaren gauzei ta urko-lagunaren onari bakafik begiratzen diete. Oien eginkizun nausia auxe da: Ezagu-

itzez eta maitatzez Jainkoarekin gero ta batago egitea; ofegatik *bat-egiteko bidean* aurkitzen dira (P. Naval, Ascética y Mística).

Baiña len esan deguna esango degu befiz ere: Iru bide oiek eztira osotara alkafengandik bereziak, ezin degu oien artean mugafirik ipiñi ta esan: Emen bukatzen da bat, emen asten da bestea. Bide oietan dabiltzanak eztira beti ta etengabe auferontz ibiltzen, badituzte aldar-teak, etenaldiak, gora-berak; batzutan aufera bestetan atzera egiten dute, beste batzutan befiz badirudi asko dabiltzala, eta ala ere ezer gutxi auferatzen dira (Tanqueray, Précis d'Ascétique et Mystique).

Tomas santuak bere *Summa Theologica'n* ere arimak iru sail oietan berezten ditu.

Lenengo bidean dabiltzan asiberiak ontan jafi bear dute beren ajola guzia: artu duten grazia ez galtzean. Alegiña egin bear dute pekatua ta batez ere pekatu ilgaria lekutzeko edo kentzeko, lera makufak ta griña gaiztoak garaitzeko, Jainko-maitatzea galarazi lezaieken edozein gauza aienatzeko.

Bigarren bidean dabiltzan auferatuak ez-tute bekatua kendu bakarik egin nai; oiek onbidetan aufera joan ere nai dute ta beren naime-

na sendortu. Biotza garbiturik, aren atea argiari ta maitatzeari idikitzen diote. Kristoren atzetik joan nai dute, Aren onbideak artu nai dituzte; eta Kristo Argia dalako, Arenganako bide oneri *argirako* edo *argitzeko* bidea deritza.

Irugarren bidekoak, betegifiak, asmo ta gogo auxe besterik eztute: Jainkoarekin bat egin, beren poz atsegin guzia Jainkoagan ipifii. Lur au afotz-eritzat daukate, zerua daukate beren egiatzko efi; eta Paulo santua bezala iltzeko ifikitzen daude, Kristogana joan eta Arekin bat-egiteko.

Orain arte esan degun guzi ori oifiafitzat ipifii ezkeru, arimari bidea erakusteko zuzenbide au jafi dezakegu:

LENENGO MAILA = Asibefiak

LENENGO BIDEA = Garbitzeko bidea

Berezgafia: Bota zuengandik orain arteko gaiztakeri guziak, eta gero biotz eta gogo befi bana ar zazue (*Ez. 18, 31*).

Bide-zatiak:

- A) BEKATU ILGARRIA ETA BAI ARIÑA ERB KENDU;
- B) SAKRAMENTU SANTUAK MAIZ ETA ZENTZUZ ARTU;
- C) GOGOZKO OTOITZA EGITEN ASI.

Ikas-gaiak:

- 1) Grazia santugafia zer dan... ta gudan zer egiten duen: Jainko-izatean parte-ematen digu—Jainkoaren ume egiten gaitu—Jainko-iduriko lanak eragiten dizkigu—Espiritu Santua gu baitan bizi-arazten du.
- 2) Sakramentu santuen artzeko zein beafezko dan sifeste bizia.
- 3) Liburutik irakufi-ta gogarteitzen (meditatezen) asi—Zein on dan Liturgiaren arabera bizi-tzea ta otoitz-egitea.

GARBITZEKO BIDEA

Jainkoarekin estuago bat-egiteko arima garbitzea: orixe da, itzak berak dionez, garbitzeko bidea.

Zein kristau daude maila ontan? Jainkoaren grazian bizitzeko oitura arturik, etsaiekiko bufuketan iya beti garaile ateratzen diranak.

Olako kristaua santutasun-bidean sartu da; eta geroztik, naiz oraindik lenengo mailan dagoen, kontu egin bear degu Jainkoaren grazian bizi dala ta oiturazko bekatu lafirik eztuela egiten.

Jakiña da, kristauak beste bide edo mailetan ere bufuka egin bearuko du, gutxi edo asko, griña makufak ezi ta zapaltzeko; baiña alere lenengo bide ontako asibefiak egin bearuko dituzte nai-ta-ez bufukarik gogofenak, pekatua ta batez ere bekatu ilgafia alienatzeko.

Oregatik emen ezlitugu gogoan artzen noiz-nai bekatu ilgafian erori ta bekatu-bidetatik

aldegiten ez tutenak; olako kristauak ez tira oraindik lenengo maila ontara ere iritxi. Bide ontan daudela esan al izateko, beren biziera txafa utzi ta ondu ta Jainkoa maitatzen asteko asmo ta gogo sendoa bederen erakutsi bear dute.

Gauza bera gertatzen da beste ala-olako zenbait kristaurekin; bekatu lafirik ez lukete ezerengatik egin nai, baiña onbidean auferatzeko gogo sendorik ere ez tute. Olakoak ere ez tira bada arima-bizitzaren lenengo maila ontara igo.

Garbitzeko bidean dabilzan arimak ez tira oraindik santu, ori agirian dago; beren gogoz ta jakinaren gainean pekatu ariñak egiteko efaztasuna badute oietako batzuek. Pekatut ilgafi edo lafia bai begitan daukate, baiña pekatu ariñari ez tiote alako gofotorik eta maiz (safitan) erortzen dira ortan. Ezta bat ere afitzeko: *beren grifia gaiztoak ezpaitituzte oraindik osotara garaitu ta ezi.*

Zein kristauak ari bear dute beraz garbitzeko bide onek eskatzen dituen jardunaldi gogofetan? Bitariko kristauak: Pekatari andi izan ondoan Jainkoagana ben-benetan *biurtu ziranak*, eta lenago kristau guziz on izan ondoan gero zabartu ta *epeldu ziranak*,

Garbitzeko bide ontan gertatzen da Paulo santuak maiz aipatzen digun bufuka. Bai, gu baitan bi gizon ari dira guduka: alde batetik *gizon zaña*, Adam'engandik datorkiguna (ots, nork beregan sumatzen dituen griña ta lera okefak), beste aldetik *gizon beria*, Jesu Kristoren araberakoa (ots, bere griñak zapatu ta Kristoren antzeko izaten saiatzen dan kristaua). Bufuka ari dira gudan beko-aldea goiko-aldearen aurka, aragia espirituaren aurka.



BEKATU LAÑIA TA BAI ARIÑA ERE KENDU

Lenengo maila onen berezgrafia orixe da: Edozein pekatu, baita ariñak ere bein ta betiko uzteko asmo ta erabaki sendoa. Eta ortarako biderik egokiena, aitorle edo arima-zuzentzaile on bat bilatzea.

Ba al dakizu zertsu dan kristaua? Zaldi bizkor ezi baten gainean dabilen aingeru bat; baiñan aingeru ofek beti erne egon bear du, geron baitan daramagun zaldi ofek, lengo izutasunera biurturik, putinka ta ostikoka lufera egotzi eztezan. Erne beraz eta zigofa beti eskuan eduki, nork bere burua eziaz ta ilduratuaz.

«Jainkoaren lur-landua zerate» diosku Paulo santuak (1 Cor. 3, 9); Jainkoaren alor edo sorra gera, eta gure lur ortako belar txafak efortik ateratzen lan egin bear degu.

Gure naikariai lasa ematen badiegu, gurdia

aldapa-bera zapatarik gabe edo kurpiña estutu gabe joaten uzten badegu, idi ta itzai ta gurdi, antxe joango dira amilka leize-zulora; gureak egin du orduan. Gure burua ezi bear degu, gure griñak estu eduki bear ditugu, gailentzen utzi gabe.

Damua, ufikia, biotzeko miña alde batera utzi ezkerro, santutasunak galdu du azitzeko bear duen zain eta oiñafia, dio Faber Aitak..

Eta lan guzi ontan apaiz zuzentzailea da eusle ta esku-emale. Bide-zati ontan apaiza bear da arimen *adiskide, sendatzaile, aita, irakasle, epaile...*

Biurdika, untza, ezkerre ta olako landare argal mengelak zuaitz-ondo sendo bati lotu ta itsatsi bear zaizkio; euskafi ori gabe lufera erori ta antxe ustelduko lirake. Bereolaxe, ainbeste makalaldi ta oztopo ta eroriko izaten diran bide-zati ontan arimak indafa bear du, eta indar ori arima-zuzentzaileak edo apaizak emango dio.

Zer da beraz apaiza?

Beste kristauen onerako Jainkoak jainkotu egin duen gizona;

Jainkoak, bedekitzeko jasotzen duen eskua;

Jainkoak itzegiteko artzen duen mintzoa;

Jainkoak maitatzeko artzen duen biotza;
Jainkoak bere burua opaltzeko berexi duen
aldarea.

Zergatik gure burukak?

Onera bultzatzen gaituzten jokera zuzenen
aldean badira gu baitan beste jokera oker,
gaitzera garamazkitenak.

Jokera makur oiek garaitzeko bide auxe
besterik eztago: Gu baitan ditugun indar bi-
ziak, Jainko-maitatzea ta onbideak geitu ta
ugalitza; ofekin aulizen ta argaltzen dira joke-
ra txafak. Jainkoa maiteago, ta jokera makufak
makalago.

Aufera joateko alegiñik egiten ezpadegu,
azalduko dira befiz gaizkeriak, bizkortuko dira
ta alde guzietatik erasoko digute gero ta maiza-
go; eta lo-zofo ortatik esna ezpagaitez, amor-
-emanen amor-emanen pekatu ilgafian erortze-
raño eramango gaituzte (Suárez, De religione).

Orixe gertatzen zaie kristau askori, arima-
-zuzentzaileak ondo dakitenez.

Berdintza batekin ulertuko degu ori: Zerura
joatekotan, ur-joaira aundiko efeka batean
gora afaunka egin bear degu; gaitzerako joke-
ra okefak dira ur-joaira ori.

Afaunak azkar erabili ta gure txalupa aufera bultzatzeko alegiña egin ezkerro, joango gera efeka ortan gora edo beintzat bererartan gogor iraungo degu. Baiña afaunak eskutik utzi baditugu, urak afastaka eramango gaitu beera itsasoraiño; eta an ikusiko ditugu ekaitz eta zufunbiñoak, ots, zirikaldi edo tentaldi lafiak eta bearbada bai erortze negargafiak ere.

Gogora dezagun esate baterako garbitasun-agindua.

Garbitasuna

Onbide au bizi guzian zaintzeko, katazka ikaragafiak egin bear dira batzuetan. Ezkontzeko ordurarte, kristauak ezta bere gorpuzari aragizko atsegiñik dan txikiena ere eman bear, ori bekatu lafia litzake ta.

Guziai erasotzen diete zirikaldi efuak, agizkoan nerabezaro edo azitzeko urtetan. Oieri buru-eman ta jarkitzeko, otoitz egin bear da, liburu ta paper txafak baztefera utzi, zine ta olako toki galgafietara ez joan, nork bere buruari gauza asko ukatu... *Eta guzi ortarako ez al dira katazka gogoñak, indaraldi izugafiak egin bear?*

Oña or zer dan gure bizitza: *Ouda, buruka.*

Gure beeko almenak gauza atsegin gozoe-
tara jotzen dute indafez, goiko almenak befiz
gauza onetara. Baiña gauza atsegiña ta gauza
ona askotan eztaoz bat; guri gozo zaiguna,
on iduri zaiguna, ezta beti on ez Jainko-legea-
ren araberakoa. Ortik ezin-alkartua, ortik bu-
fuka. Olakoetan ezaumenak zuzendu bear-
ko du dana, jokera makufak zapatu ta garaitu
bearko ditu; auxe da aragiaren ta espirituaren
arteko bufuka, naimenaren ta grifiaren arteko
gudua.

Ta gudu au oso gogor da gero. Begira no-
lako indafez igotzen dan udabefian izerdia
zuaizetan gora; olaxeko indafez goratzen dira
gure arimaren beeko aldean ere atsegin txafe-
tarako bultzaldi gogoñak.

Atsegiña berez ezta gauza gaiztoa; zertarako
egiña dan ta artara zuzendu ezkeru, Jainko-
legeak eskatzen duen bezala artu ezkeru,
gauza ona da.

Baiña atsegiña zertarako egiña dan ta artara
begiratu gabe bilatzea, gozotasun ori gure
naiaren elburu edo azken-muga bezala bilatzea,
ori makurkeri bat da, ori bekatu da.

Geron baitan ari degun gudu ontan garaile
ateratzeko, graziaren beafa degu.

Grazia santugafia zer dan ondo-ondo ikas dezagun; Jainkoak egin digun emaitza andi onen goratasuna, gure arimak era-befitzen dituen ondasun au ondo ezagutzeko argia Jainkoari berari eska dezaiogun.

Len esandako zenbait gauza befiz esan nai ditut, gogoan barna obeto josi dakizkitzun.

Grazia santugafia

Eta orain lenengo bide-zati onen gorenera iritxi gera: *Izatez-gorako bizitza, Jainko-bizitza, grazia santugafiaren jakintza, umetzat-artzea, lan jainko-iduriak, Espiritu Santua gure arimetan egotez egotea...* oiek ezkutu afigafiak!

Gizona berez, bere izatez, Jainkoaren mirabe ta menpeko da; berezko egoneran, gizon-izate utsari dagokionez orixe besterik ezta. Baiña Jainkoak ontasun andiz eman dio beste izate bat, gizon dan aldetik zor etzitzaion izate bat, izatez-gorako bizitza deitzen deguna. Jainkoak gizona bere azkazi edo familian safarazi du, *bere umetzat* eta *Jesu Kristoren senideztat artu du*, bere ondasunen *jabegai* egin du, zeruan toki bat gorde dio. Eta umetzat-artze ori ezta gero itz utsezkoa; grazia santugafiaren

bidez, Jainko-bizitzan parte-eman dio. Zer da beraz grazia? Len esan degunez: «*Baŕuko ego-kitasun, arimari itsatsia; Jainkoaren emaitza izatez-gorakoa, barnekoa, agiri ezтана, baiña ziñezko ta egiazkoa, espirituzkoa; oŕek Jainkoaren azkaziraiño jasotzen gaitu, Jainkoaren ume al izateko; oŕekin goza gaitezke lurrean sifñestearen argiaz, ezaumen utsaren argia baiño goragoa dan sifñeste-argiaz; oŕekin zeruan Jainkoa begiz-begi ikusiko degu, eta ikuste ori argiago edo ilunago izan ta arau ortara maitatuko degu Jainkoa*» (C. Marmion, J sus Christ, vie de l' me).

Jakiña da, gugan daukagun Jainko-bizitza ori parte-artze bat baizik ezta, Jainko-bizitzaren iduria, Tomas santuak dionez: *Participata similitudo divinae naturae*. Ofekin ez gera *jainko* egiten, bai ordea *Jainko-iduri* edo Jainkoaren antzeko.

Ala ere, bizitza ori ezta irudikeri utsa ere; egia da, benetako bizitza befia, ez Jainkoaren bizitza bera, baiña bai aren antzekoa; eta ortarako, gure Jaunak esan duenez, birjaiotza edo jaiotza befi bat bear da: «Uretlik eta Espiritu Santutik befiz jaio ezтана ezta zerurako» (Io. 3, 5).

Ofexegatik, bataioa *birjaiotzeko* Sakramentua deitzen da. Kristauok bi aldiz jaiotzen gera: bein gure amengandik lufeko bizitza ontarako, gero befiz bataioan zeruko bizitzarako.

Geroztik Jainkoak gu umetzat artzen gaituela... ezta ametsa, ezta irudikeria; egia da, gertatua da.

Eta izatez-gorako bizitza au, Jesu Kristoren irabaziai esker, Jainko-bizitzan parte-artzea dalako, olaxe deitzen da: *Jainkoa gugan bizitzea* edo *Jesus gugan bizitzea*.

Esan degun ortatik atera dezakegu beraz zer dan bizitza ori: *Jainko-bizitzan parte-artze bat; Espiritu Santuak gugan bizitzean ematen digu ori, eta guk geren aldetik zaindu bear degu aurkako jokera guziaz buruz* (Tanquerey, Précis d'Ascétique et Mystique).

Gugan daukagun Jainko-bizitza onen itufi edo *eragile* nausia Irutasun guziz Santua da; baiña bereziki Espiritu Santuari ezartzen zaio lan ori.

Bai, graziazko bizitzaren lan au iru Jainko-Personak egiten duten lana da, kanpo alderako lana dalako (opus ad extra); eta ala ere bereziki Espiritu Santuari ezartzen zaio, maitezko lana dalako.

Espiritu Santua gugan bizitzea

«Ez al dakizue Jainkoaren eliza zeratela eta Espiritu Santua zuen baitan bizi dala?» (1 Cor. 3, 16). Espiritu Santuarekin batean beste Jainko-Personak ere gugan daude egotez.

Baiña auxe gogoan eduki: Jainkoa ezta gero afizko edo zurezko jainko bat, oifialki baten gainean eseri ta geldi-geldi dagoen bat, ez; egiazko Jainkoa Jainko bizia da: «*Uni Deo vivo et vero*». Eta Jainko ofek izatea berezkoa duen bezala, berezkoa du orobat lan egitea ta Jainko-Personak sortaraztea; ots, Jainkoa beti zerbait ari da, eztago alper ta geldi, eztago langabe.

Geroztik, Espiritu Santua dagoen tokian Irutasun Santu osoa ere antxe dago. Eta Irutasun Santua, olako ondasun andia gu baitan daukagun ezkerro, ori maiz gogora ekafi bear degu, «*ambulare cum Deo intus*».

Eta Jainkoa gu baitan daukagula gogoratuaz, Aren alderako gure eginbeafak bete bear ditugu, ori agirian dago (J. Olier, *La journée chrétienne*).

Eta eginbide orietako lenen-lenengoa jau-restea (adoratzea) da: «*Ospa zazue beraz Jainkoa zuen gorputzetan*» (1 Cor. 6, 20).

Iru Jainko-Personak gure arima beren eliza

egin duten ezkerro, nai dute ta eskatzen digute guk jauretsi (adora) ditzagun; eta jaureste origeron baitan zuzendu bear degu.

Jaurestea ta maitatzea

Eta egiazki, nola ez ospatu ta onetsi ta be-deikatu gu baitan egotez dagoen Jainkoa, nola ez eman eskefak gure arima bere eliza ta etxetzat artu duen Afotz andi oferi?

Andre Marik, Jainko Gizon-egiña bere sabel garbian artu zuen ezkerro, bere bizi osoan orixe besterik etzuen egin: Jainkoa jauretsi, Jainkoari eskefak eman: «Nere arimak Jauna goresten du... gauza andiak egin dizkit altsua dan ofek, eta Aren izena santu da» (Lc. 1, 46).

Orixo bereorixe egin bear luke edozein kristauk ere: bere ariman, Jainkoaren eliza orian iru Jainko-Personak beti beti jauretsi ta ospatu, alertu gabe, bein ere eten gabe.

Edozein lan astean, Gurutze santua egin ta esan: «*Aitare ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean*»; lan ura bukatzean, egin duen on guzia Jainkoari zor zaiola aitortu ta esan: «*Ospea Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari*».

Eliza Ama santuak Irutasun Santuaren go-

resteko jafirik dauzkan otoitzak maiz (safitan) esan bear genituzke: *Gloria in excelsis Deo*, mezako *Sanctus*'a, *Te Deum*, Kredoa, *Veni Sancte Spiritus*.

Gure etxelagun dan Jainko ofen aufean ezagutu ta apalki aitortu bear degu, gu oso osorik Arenak gerala, Bera bear dan bezala goratzeko gauza ez gerala; Jesusen Espirituak bakarik eman dezaioke Jainkoari dagokion ospe osoa, eta guk ere Espiritu ofekin bat-egin bear degu: «Espirituak eusten dio gure makalari; guk zer ta nola eskatu bear degun ezpaitakigu, Berak eskatzen du gure orde z ezin-esan-alako aiotsekin» (Rom. 8, 26).

Iru Jainko-Personak maite gaituzte eten gabe, ontasun utsez ta gure on utserako; guk bada maitatzea maitatzez ordain dezagun. Eta aiek santutasun-eredu edo erakusmen itzalgabea baitira, aien antzeko izaten saia gaitezen al guzia.

Aiek beti gogoan gauzkate ta gure arimen onari begiratzen diote; gu ere oroi gaitezen aietaz, esker onez beterik.

Arima santu batek bezala esan bear genduke guk ere: *Zerua luzean aurkitu def, zerua Jainkoa da, eta Jainkoa nere ariman dago.*

Amaika arima, Jainkoa berengan bizi dala Espiritu Santuaren argiz ezagutu ondoan, osotara befitu izan diral Beren bizieran bide befi bat nabaritu zan, santutasun andiagoa, zeruko zorionaren astea, batez ere Jainko etxelagun ofekln estu-estuki loturik bizitzen saiatu badira.

Ezta bat ere afitzeko: Irutasun Santuaren eliza bizi gera, eta ori ez al da gu onbidetan aufera joan-arazteko akuñu aski eraginkofa? Ez al gera saiatuko Jainko guziz santua bizi dan eliza al bait ondoen apaintzen? Nola apainduko degu ordea gure bafuko eliza au? Onbidetan auferatuaz eta ola gure erakusmen dan Jainkoaren al bait antzekoen izanaz.



SAKRAMENTUAK MAIZ ETA ZENTZUZ ARTZEA

Zortzian bein aitortza egin ta egunoro gure Jauna artzea: orixe litzake edefena. Ala ere, Sakramentu oiek zentzuz artu bear dira, arimaren onari begiratuaz, eta ez arinki, barneko goxokeri ta gurikeri bila. Eta ortarako zer da egokiena? Siñestea, siñeste bizia; batez ere bi Sakramentu oiek zer diran ondo gogoan eduki ta siñestea.

Zer da Aitortza? Jainkoak gure arimen onerako asmatu duen gauzarik onenetakoa. Gure gorputzen sendatzeko belafak, senda-belafak, eskumendean ipifii dizkigu Jainkoak; eta gure arimen sendatzeko sendagairik etzigun bada emango?

Gure arimari *bizia* emateko, *aziarazteko* ta *janarazteko* bear dana ornitu digu; eta arimaren *sendatzeko* befiz etzigun ezer emango?

Baiña Aitortza ondo egin bear da gero;

lenengo bide-zati ontan Aitortzaren siñeste andia bear da. Amaika oztopo ta erorbide aienatuko lirake ola! *Siñestea bear da beraz, siñeste andia, siñeste bizia.*

Nor ausartuko zan Jainkoari berari bere aurpegi aurfan aitortza egitera? Iñor ez noski. Eta ara zer egin duen Jainkoak: gu ez atzerazteko erako itxura artu du, gizon-itxura artu du, gizonari eman dio bere eskubide ta nausitasun osoa: «Zuek bekatuak zeiferi barkatu eta aieri barkatuko zaizkie» (Io. 20, 23).

Baiña egiazki aitortza Jainkoari egiten diogu, ez gizonari: «Nik, bekatari onek, aitortzen diot Jainko guzieldunari...»

Apaiza aitortegian Jesu Kristo bera da, ari barkatzen. Barkamena Jainkoagandik dator, gizon baten bidez bada ere: «Jainkoak bai, beste iñor ezin baitu bekatuak barkatu» (Mc. 2, 7).

Apaiza bera bekatari dala? Ainbatenaz esker geiago zor diogu Jainkoari, bere *erukia* baiño bere *santutasuna* galdu-gordean jafi naiago izan duelako.

Eukaristia Santua

Aitortzaren bidez arimaren bizi befia iritxi

degu; baiña biziak ezin iraun dezake azkufi edo janari gabe.

Graziazko bizia galdu ondoan befiz aurkitzeko bide bat bada: damua ta aitortza.

Gero bizitza befi oferi iraun-arazteko bide bat ere bada: Eukaristia.

Gure Jauna artu bear da. Ortako gelditu da Jesus aldarean; adiskideak eskua luzatzen didanean nerea eskatu egiten dit. Gure Jauna ar dezagun sifieste andiz, ori nai du ta ori eskatzen du Berak.

Aritz egiteko dagoen ezkufa lurpean usteldu ta galdu baledi, ezta zuaitzik sortuko; ezkufa ta aritza galdu dira, ezkur ura auts pixka bat biurtu da.

Guk ere, nolazpait jainko izateko gaudenok, arimaren azkufia alde batera uzten badegu, Jainko-bizitzaren azi ta ernemin dan grazia galduko degu, gerok ere galduko gera; ez aingeru ez gizon oso... utsa izango gera.

Jauna-artzea Jainkoa bigafen aldiz *Gizon-egitea* da; ofen bidez Jesu Kristok gurekin lotu nai du ezin autsizko lokafiz, eta lokafi ori bekatuaz bakafik austen da.

Jauna-artzea korapiño bat da, Jainko Gizon-

-egifiaren ta gure arteko ezkontza miragafi bat da.

Bi aldiz egin da Jainkoa gizon: Bein Jesusengan, bigarengoz Jesus gugan.

Ain egia da ori, ta Leon Andi Aita santua ezta kupide, bataiafi sakona Andre Mariren sabelarekin berdintzera: «*Espiritu berak betetzen ditu biok, jaiotza bat bera eragiteko*». Eta bataioan artu degun Jainko-bizitza oneri gure Jauna artzearekin iraun-arazten diogu.



GOGOZKO OTOITZA EGITEN ASI

Beti bai, baiña batez ere garbitzeko bidean orixe gogotan artu bear da befiz ta befiz: *otoitza, otoitz asko egitea.*

Asibefiai aise jartzen zaie iduritu au: *gogona* ta *kemena* izan ezkeru, guzia iritxiko dutela.

Ala ere, laster ikasten dute, beren kostuz, ori eztala aski; asmo ta gogorik onenak ere bete gabe gelditzen dirala alegin guziengatik. Ofekin bederen ikasten dute zein beafezko dan otoitza.

Eta zein da asibefiai egokien zaien otoitza? Gogozko otoitza, sifisteko egiak gogoan iraultzea ta ausnartzea, gogartetzea (meditaztea). Baiña guziak auxe kontuan artu bear dute: otoitz-era ortan gauzarik beafena biozkadak ta asmo onak dirala, esaterako, bekatuen damua, bekatuak ta artarako bideak uzteko asmo sendoa, Jainko gero ta geiago maitatzeko

gogo ziña, onbidetan aufera joateko naikaria ta abar.

Gogarte edo gogozko otoitz ofek ondarazten ditu bekatuak eta oien itufiak. Eta egiazki, zergatik erortzen gera bekatuan? Gogoeta egiten eztegelako ta naimena (borondatea) argal daukagulako. Gogozko otoitzak zuzentzen ditu bada bi oker oiek.

Bestalde, gogarte ofek eramaten gaitu gogoz *sulezera*, an zai dagokigun tokia ikustera; *ileñi* edo kanpo-santura, gure azken egonlekua ikustera; *zerura*, an gertu daukagun alkia ikustera; *Josafat'en zelaira*, gure azken epaiketan aurkitzera; *Belen'a*, gure Salbatzailea ezagutzera; *Tabor* mendira, nor maitatu bear degun ikastera; *Kalbari* mendira, gure eredu edo erakusmena begiztatzera (P. Crasset).

Gogozko otoitz ofek gure naimena azkarzen du, nagikeri ta zabarkeri ta aldakortasuna gutxika aienatuaz. Ofegatik, gogartea santutzeko bide indar andikoa da.

Otoitz egiten duen kristaua, dio Liguori'tar Alfonso Maria santuak, ezta luzaro pekatuan egongo; laster utziko du edo otoitza edo pekatua.

Otoitz egin ezkeru, dio Dom Chautard'ek,

altzairuzko estalki batez jantzia bezala nago ta etsaien ezpatak eztute estalki gogor ori zulaturko; otoitz egin ezik, gorputzean josiko zaizkit.

Batez ere apostolu-lanetan, besten arimen onetan ari danak otoitza alde bat uzten badu, gogoia bildurik ibiltzeko ta Jainkoarekin izketan aritzeko oitura galduko du; eta orduan zer izango da olako kristauea? asots egiten duen tupiki edo bufun-bufun ari dan ezkiñ, besterik ez (1 Cor. 13, 1).

Nola egin bear dezun gogozko otoitza ta nola garaitu artan aurkitzen dituzun neke ta ezbaiak, zure arima-zuzentzaileak irakatsiko dizu.

Liburutik irakufi-ta gogartetzea

Baiña egiazko gogozko otoitzera irixteko, gogarte ortara bete-betean sartzeko, on da leenik liburutik irakufi-ta gogartetzea.

Bernardo santuak esan du: «Irakurtzeak esnea ematen digu, gogarteak janari sendoa, otoitzak indafa».

Esan egiten diran itzak laster joaten dira; liburuan idatzirik daudenak irauten dute, oiek gogoan barnago sartzten dira; lur bafura poliki sartzten dan zirimiru edo euri goxoa dira, eta

are geiago liburuko itz oiek gogoan irauli baditugu.

Ezta ortarako edozein liburu artu bear. Utzi alde bat goxokeri ta gurikeria besterik ezta-karten liburuak! Adimena argitu ta biotza dardaratu egiten duten liburuak bear dira; bi ondore oiek atera bear baitira gogozko otoitzetik.

Lagun bat eztegu maitatzen nonbait bizi dala jakite utsarekin; maitatzekotan, aren bila joan ta ezagutu ta nolakoa dan ikasi egin bear degu. Bereorixe gertatzen da Jesusekin ere: maitatzeko, len lenik ondo ezagutu bear degu eta ori gogozko otoitzean irixten da.

Auxe damugafia! Kristau askok oso gutxi dakite kristau-ikasbideaz, gure legeko gauzetaz. Lufeko gauzen ikasteko, legegizon edo sendatzaile edo izateko, urte askoz eskoletan ibiltzen dira. Kristau-ikasbidean befiz... amar urtekin naikoa badakite, gizondu dira, eztute geiago ikasi beafik. *Eztute ikasten, ez irakurtzen, ez gogartetzen.*

Eta gero zer gertatzen da? Olako oiñafi makalaren gainean etxe makala goratzen da, olako zain mengeletik zuaitz mengela sortzen da; eta edozein aize aski da oiek lufera egoz-

teko. *Amar urteko erlijio oreak* ogeitamar urteko bufuka ta griñak jaso bear ditu, eta ori ezin diteke. Zama geiegi jafi dioten txalupa arin bat da, eta nai-ta-naiez urpera joango da.

Sinesteko egiak ondo ikasi bada eta maiz gogoan irauli!

Liturgia

Ona emen arima-bizitzaren bide-zati ontan aztu bear eztan beste gauza bat: Liturgia, Eliza Ama santuaren otoitz, meza, bezpera ta beste elizkizunak.

Jesu Kristo Jainko Gizon-egiñak emen lufean ibili zituen joan-etofi guziak gogora ekartzen dizkigu Elizak urte-bidean meza ta beste otoitzetan; ola Jesu Kristoren lufeko bizitza luzatu egiten du.

Orixe da Elizak bere umeai irakasteko duen eskolarik onena; ofela erakusten die zerurako bidea ta saiatzen da bere umen arimak santu-arazten.

Gu gorputz eta arima baikera, ez arima uts, agiri diran gauzetatik joan bear degu agiri ezdiran gauzetara, gure begiz ikusten ditugun gauzetatik ikusten ezditugun gauzetara.

Jesusen bizitzako joan-etofiak urte-bidean

liturgiaren bidez gogora ekafiaz, Elizak begien aufean jartzen digu nola ibili zan Jesus onbide guzietan, eta bidenabar erakusten digu nola ibili bear degun guk ere Aren atzetik, Ura ibili zan bide beretik.

Ofegatik esan du X'gafen Pio doatsuak: «Kristauak mezan ta beste elizkizunetan parte bizia artu bear dute; orixe da egiazko kristaufasunaren itufia, lenengo ta ezin-besteko itufia».

Geroztik, meza-liburua, apaizak aldarean daukan liburu ura bera maiz eskutan erabili (euskeraz ere atera da orain befiki); elizkizunetara gogotik agertu, baiña ez an ezer egin gabe begira egoteko bakafik, ez; kantatzeko, apaizari erantzuteko, arekin batean otoliz egiteko, Eliza Ama santuak irakasten diguna ikasteko. Orixo da Aita santuen gogo bizi-bizia.



BIGAREN MAILA = Auferatuak

BIGAREN BIDEA = Argitzeko bidea

Berezgarria: Bizi naiz, baiñan ez ni; Kristo bizi da nigan (*Gal. 2, 20*).

Bide-zatiak:

- A) SIÑESTE TA ITXAROPEN ONBIDEAK;
- B) GOGARTEZKO BIZITZEA;
- C) JESU KRISTO GURE ERAKUSMEN.

Ikas-gaiak:

- 1) Zer da Kristoren gorputz mistikoa—zer ondore datoz ortik gure arima-bizitzarako —Andre Mari gure Ama da.
- 2) Arimai erakutsi bear zaie ta lagundu, siñeste biziko ta gogartezko biziera egiten.
- 3) Gure arima-bizitzaren erdi-erdian Jesu Kristo ipiñi.

ARGITZEKO BIDEA

Arima-zuzentze au ezta aldarteka edo zenbait bizi-alditan bakarik egin bear dan gauza, esaterako, azitzeko urtetan, bide onera biur-tzean, bizibide bat aukeratzekoan, soldaduzkoan, ezkongaietan eta.

Garbitzeko bidean arima garbitu ta sendatu da, zoztor ta oztopoak aienatu dira. Baiña ori ezta aski; bear eziana *kendu* ondoan bear dana *jañi* ere egin bear da.

Kristauari tankera edo itxura oso osoa eman bear zaio; baiña noren tankera? Kristorena. Jesu Kristo da gure santutasun-eredu edo erakusmen bakaria; geroztik Aren tankera artu bear du kristauak, Paulo santuak dionez: «Enetxoak, zuengatik aur-miñetan nago befiz, Kristok zuengan tankera artu dezan arte» (Gal. 4, 19).

Kristo bezala, zerura joan bai, baiña Jainkoari ospe emanaz; zerura joan, Jainkoari

ospe emanaz ta Jainkoari ospe emateko; zerura Joan, lagunak ere ara eramanez, orixe bear da gure asmo ta gogo bizia.

Eta nola bilatuko du kristauak Jainkoaren ospe ori? Kristorekin gorputz bat egiaz, Kristoren gorputz ezkutuaren alderdi izanaz.

Lan guzi au *argitzeko bidean* egiten da.

Bide au zergatik deitzen da ola? Begira, Jesu Kristo gizonen argia da, Berak esan digunez: «Ni naiz gizonen argia; nere atzetik datořena eztabil ilunbetan, arek badu bizitzako argia» (Io. 8, 12). Baiña kristaua maila ontan Argi ofen ondotik dabil, Ura ibili zan bidetik ibiltzen saiatzen da, ortarako onbide guzietan jardunaz.

Argitzeko bidean iritxi nai deguna auxe da beraz: Jesu Kristoren antz-antzeko izan, Jesu Kristo gure bizitza osoaren erdi-erdian jar-tzeraiño.

Auferatuak

Auferatuak deitu ditugun kristauak aurkitzen dira argitzeko bide ontan. Bai, orain ari-mari badatozkio ugari zeruko argi ta deiak; gairera, garbitzeko bidean kendu dira argi oferi ariman sartzea galarazten zioten zoztor

edo trabak; orain sar diteke argia arimara, ta argi ofekin egiten diran lanak izatez-gorako lanak, gizonak bere indar utsez ezin egin litzaiken lanak dira. Ofela auferatuen maila ta argitzeko bidea batera datoz.

Bigafen maila ontan Jainko-maitatzea pizten ta lotzen da ariman, sua egur legofean lotzen dan bezala; lenengo mailan garbitu ta idortu baitzan.

Ala ere, badago oraindik garbitu beafa; egur ofen biotzean badago oraindik alako kutsu bat, alako uskeri ta nork-bere burua maitatze gorde bat. Ori ere kendu bear da bada, egufa ikatz gori gori biurtzeraino; orduan arima irixiko da bat-egiteko bidera, be-tegiñen mailara.

Bigafen maila ontan arimaren alegiñik andiena onbidetan aufera joatea da; eta onbide oiek asko baitira ta askotarikoak, guzi oiek bildurik dakarzkien eredu edo liburu bat bear degu: *liburu ori Jesu Kristo gure Jauna da*: «Ni naiz bidea, bizitzea ta egia» (Io. 14, 6); liburu ortantxe dauzkagu batera bildurik onbide guziak.

Jesu Kristoren antza artzea: ori da arima-bizitzaren ardatza, ortara egin bear degu ale-

gin guzia beti bai, baiña batez ere argitzeko bidean.

Jesu Kristoren antzeko izatea ezta nolanaiko aolku edo burubide bat, santu izan nai duten kristaumentzat bakafik emana, ez; ori *kristau guzi guzien eginbide nausia da*; Kristoren antzeko izaten saiatzen eztan kristaua ezta egiazko kristaua.

Jesu Kristoren gorputz mistikoa

Kristau guziok gorputz bat, Kristoren gorputz mistikoa osotzen degu; *gu ez gera gauza oso bat, gauza oso baten zatiak gera*.

Ori adiarazi digu gure Jaunak arako itz eder aiekin: «*Ni naiz matsondoa, zuek matsadafak*» (Io. 15, 5).

Or irakasten digu egiazki, guk bizitza Arengandik degula, matsadafak ere matsondotik duten bezala. Mats-ondo ta adafak gorputz bat dira; matsadafa ondoari datxekon arte bizi da; ondotik ebaki ezkeron iltzen da.

Ortik agiri da gure Jaunak eta guk *bizitza bera* degula, ots, gorputz mistiko bat generala, eta ofen Buru dan Kristok alderdioi bizia ematen digula.

Ainbeste ondoreen itufi dan egia ori Paulo santuak maiz alpatzen du.

Gorputz batek, biziko bada, bear ditu burua, arima ta alderdiak. Burua Jesu Kristo da, arima Espiritu Santua edo Irutasun Santua, onek ixurtzen du egiazki gure arimetan Jesu Kristok irabazitako grazia ta Jainko-maitatzea: «Jainko-maitatzea gure biotzetan ixuri da eman zaigun Espiritu Santuaren bidez» (Rom. 5, 5).

Ofegatik deritza *Espiritu bizi-emalea*: «Sifiensten det Espiritu... bizi-emalea» (mezako Kredoan).

Gorputz ofen alderdiak kristau guziok gera: grazian daudenak grazia ofen bidez; pekatuan daudenak sifienste ta itxaropenaz; zerukoak Jainkoa begiz-begi ikusiaz. Sifienste gabeak eztira orain gorputz ofen alderdi, baiña bai izateko gal. Sulezean daudenak, oietxek baka-fik daude gorputz ortatik betiko ebakirik.

Zer da beraz Eliza? Kristori lufean iraun-arazten diona, egiazko Kristo bera gizaldiz-gizaldi lufean bizi dana: ori da Eliza. Kristo etzan zerutik jexi orduan Juduefian bizi ziran jendentzat baka-fik, ez; toki ta aldi guzietan izango ziran jende guzientzat etofi zan lufera, eta jende guziekin dago orain bere Elizan.

Gorputz mistiku lan-egilea

Gorputz mistiku onek lan egin bear du, ez

geldirik alper egon; zergatik? Jainkoak nai du Jesu Kristok ekafitako grazia, gu bezalako gizon argal ezerezen bitartez, lurbira guzian zabal dedin.

Ofela Jainko-Semearen Gizon-egite ura nolazpait edatu edo luzatu egiten da. Jainkoa uferatu zitzaigun bein bere Semea gizon egina; orain befiz uferatzen zaigu bere Seme ofen gorputz-alderdien bitartez, artarako begiz jo dituen gizonen bitartez.

Jainkoak nai du bere aukerako gizon oiek, zein bere lanbidetan, jardun dezaten kristauak santu-arazten, Kristoren gorputza andiarazten ta etxe-antzera goratzen, guziok Kristoren adin osora iritxi arte: «*Kristoren gorputza eraikitze*» (Eph. 4, 12).

Itz oiekin Paulo santuak auxe adiarazten digu: Gu Kristorekin geran gorputz onek azi bear duela ta bere esteri edo anditasun osoraino iritxi bear duela.

Graziaren bidez Kristoren bizitza bera duten arima oiek, Kristorekin batean gorputz mistiku bat osotzen dute, Burutzat Kristo bera duen gorputza.

Ofela Kristo gu baitan tankera artzen ari da, eta guk Arengan *azi* egin bear degu. Ofela

Kristok eta Elizak «Kristo osoa» egiten dute, buru ta gorputz; Jainkoaren Seme bakafa da Buru, Eliza befiz gorputz.

«Poztu gaitezen, dio Agustin santuak, eta eskefak eman ditzagun, ez kristauak bakafik, baita Kristoak ere egin geralako».

Bi itzetan: Juduefian ogeitamairu urtez bizi izan zan Kristo artaz gairera bada beste Kristo mistiku bat, toki ta aldi guzietara edatzen, luzatzen dana; gu ofen gorputz-alderdi gera. Kristo onek ere baditu burua, arima ta alderdiak; eta guziok gorputz bakar bat osotzen dute.

Ala ere eztira bi Kristo, Kristo bat beraren bi itxura baizik; noizpait lufean bizi izan zan Jesus ura gure gorputz mistiku onen Burua baita (Arami, Vivre).

Andre Mari gure Ama

Ortik ateratzen da beste egia bat, arima-zuzenbidean ezin baztefera utzi ditaken egia pozgafi au: *Andre Mari gure Ama da.*

Gure Jaunak bere aragi ta odolezko gorputz arentzat Ama bat nai izan zuen; eta berdin beste gorputz mistiku onentzat ere Ama bat nai du. Marik egokitu zizkion Jesusi gutxika

gorputz-alderdiak ta izakera; bereolaxe egokitu bear ditu kristauak ta auen izakera izatez-gorakoa.

Gerostik arimaren bizia eman digun Ama bat badegu.

Eta noiz egin zan Mari gure Ama? Jesusen Ama egin zan ordu berean. Bai, Jainkoaren Ama izateko baietza ematean, etzan aragi ta odolezko Kristo aren Ama bakafik egin; gure Salbatzaile ta gizadi befiz-jaioarene efege ta gorputz mistikuaren buru izango zan Kristoren Ama ere egin zan.

Buruaren Ama ezin izan ordea, alderdien Ama ere izan gabe; Jesusen Ama dan ezkerre, gure Ama ere bada.

Ona zer dion Agustin santuak: «Aragiz gure Buruaren Ama, gogoz Aren alderdien Ama».

Bestalde, Jesusek gurutzean Mariri ta Joan apostoluari esan zizkien itz aiekin: «Ofa or zure Ama!—Ofa or zure semea!» egia ori sendortu ta jakin-arazi besterik etzuen egin.

Eta gure Ama on ofek ezin geiago maite gaitu, bere Seme guziz maitearen luzapen eta gorputz-alderdi antzera maite gaitu; guk ere ordainez bera al guzia maitatu bear degu bada.

Ortarako gogora dezagun Bossuet'en bu-

rutapen eder ura: «Andre Marik Jesus ematen digu... itzul dezaio gun Jesus guban, eta Marik gure maitez galdu zuen Seme ura bizi dediña befiz gure arimetan. Jesusen antzeko izan gaitezen, eta Marik Jesus ikusiko du guban, eta gu maitatzean Jesu Kristo maite duela iduritu-ko zaio, eta bere maitatzearen gozotasun gu-ziak gu baitara ixuriko ditu».



SINESTE TA ITXAROPEN ONBIDEAK

Jainkozko bi onbide edo birtute oietan: Siñeste ta itxaropenean, jardun bear degu bereziki argitzeko bide ontan.

Len esan degunez, arimak bide ontan argi ta kemen ugari artzen dituelako deitzen da argitzeko bidea. Argi oiek siñestetik datoz ordea, ta kemena itxaropenetik; oien bidez Jainko-maitatzea jabetzen da pixkeka artean nagi zegoen biotzaz, ta kristaua ofela bat-egiteko bidean sartzeko egokitzen da.

Siñesteaz egia baztergabea dan Jainkoarekin bat-egiten gera; Jainkoa ezagutzen degu Berak bere burua erazagutu edo agertu digun bezala; ofekin Jainkoa zeruan begiz-begi ikusteko egokitzen gera.

Itxaropenaz gure zorion gorena dan Jainkoarekin bat-egiten gera, eta Ura maite degu gure on bakar dalako. Ofen bidez zeruko gozamenak ta ara joateko bear diran laguntza

guziak itxaroten ditugu sendoki ta segurki; ofekin betiko zorionaz jabetzeko bidean jar-tzen gera.

Sifístea gure arima-bizitzaren oiñafia da; siñesteaz baliatzen da Jainkoa guri bere bizia afarazteko, bere burua Berak ezagutzen duen bezala guri erazagutzeko; siñesteaz Jainkoren ta Jainko-gauzen jabe egiten gera.

Itxaropenaz lufeko on guzietatik askatu ta Jainkoarekin batu egiten gera; ofek sortzen dizkigu naikari ta ifits onak, batez ere zerura joan ta Jainkoaz jabetzeko gogo bizia, eta bai ifikatzen degun on ori irixteko kemen ta oldafa ere. Garaitzeko indar ta iraupena ematen digu.

Gure Buru dan Kristorekin gorputz bat egi-ñik gaudela, zalantzarik gabe itxaroten degu zerua ta Jesusek an apaindu digun tokia: «Banoa zuei toki bana egokitza» (lo. 14, 2).

Sifístearen indaía

Sifístea da bigaten maila oneri egokiena zaion onbidea. *Gure arima siñesteaz Kristo-reakin bat-egitea: oña or beste bide bat, Sa-kramentuez landara, gure buruak santua-razteko; bide eñaz ta zelaia, maizago ibil diteken bidea.*

Sifíestearen idafa ondo ezagutzeko, gogora ekar dezagun Ebangelioko gertakari bat: Jesus gizalde andi baten erdian dago... aspaldian gaixo zagoen emakume batek sendatu nai du ta Jesusi atzetik urbildu ta soñiekoaren ezpaña ukitu dio.

Jesusek burua irauli ta galdegin: «Nork ukitu nau?» Pedro santuak erantzuten: «Jauna, alde guzietatik estutzen ta zapatzen zaituzte, eta ala ere nork ukitu zaituen galdetzen dezu?» Jesusek befiz ere: «Bai, norbaitek ukitu nau, nigandik indar bat irten dala nabaritu det». Egiazki, emakume ura sendatu zan; zergatik? Jesusen soñiekoa ukitu zuelako, besterik gabe? Ez noski, beste jende askok ere ukitzen zuten orduantxe...; emakume arek ordea bazuen beste zerbait: *sifíestea*, ofengatik sendatu zan.

Sakramenturik gabe Kristori uferatzen gatzazkion aldioro, Argandik ateratzen da alako jainkozko indar bat, gure arimetara argia ta laguntza ekartzera sartzen dan indafa. Siñestea: ori da Kristogana joateko bidea.

Kristo ukitu

Emakume arek Jesusen soñiekoa ukitu zuen; guk siñesteaz ukitzen degu Kristo, ta

jainkozko ukitze ofen bitartez gure arima itxura-befituaz dijoa pixkabanaka. Orixe santutasun-itufi ugari ta ezin-agortua!

Kristoren ukitze ofek arimak ere sendatzen baitzituen, ez gorputzak bakafik, Ebangelioetan agiri danez; arako itz aiek: «Zure sifisteak sendatu zaitu» maiz esan zituen Jesusek.

Samaria'ko andre pekatari ura ondu zan, Jesus Mesias zala siñetsi zuelako;

Madalena bere pekatuetatik garbitu zan, Jesus Profeta andia, Jainkoak bidalia zala ezagutu zuelako;

Pedrok, pekatu egin ondoan, begiratu zion Jesusi siñestez beterik; ta pekatuen damua artu zuen;

Lapur onak, iltzeko zorian, Jainko-Seme aitortzen du ta bere jaurefian toki bat eskatzen dio; ta Jesusek gaiztakeri guziak barkatu ta zerua agintzen dio.

Jesusek esan du: «Zorioneko dira ikusi gabe siñetsi dutenak» (Io. 20, 29).

Agustin santuak galdegiten du: «Guk nola uki dezakegu Kristo, zerura joan dan ezker?» Eta berak erantzuten: «Sifisten duenak sifieste ofekin ukitzen du Kristo».

Bai, benetan sifistea: Jesus Jainko dala,

guzia badezakela, aren irabaziak ezin-agortuak dirala sifñestea, ori da Kristo ukitzeko bidea.

Uki dezagun maiz Kristo sifñeste ofekin, laster santu izan nai badegu.

Sifñestearen frutua

Sifñeste ortatik, Jesu Kristo sifñestearen bidez ola ikusi ta ukitzetik *sortzen da bere-berez itxaropena*.

Ona emen zertan duen oiñafia itxaropen ofek: Kristok gure zofak bere gain artu zituen, gure ordain jafi zan, gugatik ainbeste neke ikusi zituen; asefe geneukan Jainkoa paketu ta gure txarkeriak aztu-arazi zizkion; Aren zor-ordaintze ta irabaziak gureak dira, gu gorputz mistikoaren bidez Arekin bat geralako, eta geroztik Aren gauzak gure gauzak dira.

Ortara ezkerro, gure pekatuak gora-bera, gu oso aberats gera Jesu Kristok guretzat ixuri zuen odol aren irabaziekin, odol arek neufiga-beko balioa baitu. Gaiñiera, Jesu Kristo gure Apaiznausi da: «Betikoa da, bein ere bukatuko eztan apaizkoaren jabe da... beti bizirik dago, Jainkoaren aufean gure alde ateratzeko» (Hebr. 7, 24-25).

Nolako uste ona ta nolako itxaropen baz-

tergabea izan bear degu beraz olako Apaiz-
nausi batengan! Areago gogoan badegu, Jain-
ko Aitaren Seme guziz maitea dala, gure
Aufendari ta Buru, bere zor-ordaintze ta ira-
bazi guzietan parte ematen digun Burua dala.

Zein-ere gora igo geran santutasun-bidean,
noizik-beinka gure itxaropena piztu ta befitu
egin bear degu.

Itxaropena ezta guk geren indar utsez iritxi
dezakegun onbidea; jainkozkoa da, Jainkoak
berak gure biotzetan erein edo ixuria. Ofen
bidez gure elburu edo azken-muga dan Jain-
koagana jotzen degu, noizpait Artaz jabetzeko
uste oso osoarekin, eta artarako bear diran
elbideak ere iristeko ustearekin.

Zein dira elbide oiek? Jainkoaren grazia ta
onekin egiten diran lan onak.

GOGARTEZKO BIZITZEA

Sifñeste oferi eusteko biderik egokiena auxe da: Gogozko otoitza, sifñesteko egiak gogoan erabili ta ausnartzea, gogartea, ots, meditatzea.

Gai ontaz itz gutxi esango dizkitzut, ain gauza jakifña baita eta lenago ere aipatu baitegu.

Gogozko otoitz onen bidez arima Jainkoekin estu-estu lotzen da, eta Jainkoarekin ola loturik dagoena zeren beldur izan diteke?

Itsasoan ekaitza danean, itsas-ertzeko arkaitzari eusten dion umea azkafago ta sendoago da, itsas-erdiko zufunbiloekin bofokan, zeri eutsi eztakiela dabilen gizona baiño.

Gogarte ori egiteko katazka edo indarka eskatzen digu gure Jaunak. Jakifña da, Jainkoak nai balu, Berak berez ta iñoren bitarterik gabe egin litzake gauzak, bai emen lufeko arazoetan ta bai zerukoetan ere. Esate baterako, ogia ta ardoa sortarazi litzake, guk garia ereiteko ta

masia landatzeko ta lantzeko nekerik bat ere artu gabe; ola egin zuen Kana'ko eztaietan ura ardo biurtzean, ta bai mortuan ogia ugaltzean ere.

Baifia agixko eztu ori egiten, gauzak bere bidetik ibiltzen uzten ditu bai lufeko gauzetan bai arimakoetan ere.

Madalena ta Saulo bat-batean, itz batekin, tximista betekin bide onera biurtu ta santu-arazi zituen, ori egia da...

Alere eztu guziekin ori berori egiten; gu ere aiek bezala era-befitu ta santutu gaitzke, baifia ortarako saiatu bear degu, nekatu bear degu, alegiña egin bear degu, ots, gogozko otoitzean gure adimen-naimenekin lan egin bear degu.

Bai, gogozko otoitza adimen ta naimenarekin egiten dan lana da, ortan siñeste ta Jainko-maitatzea bizitzen dira; eta lan ofek gure arimari laster tankera befia ematen dio, suak sutegian sartzen dan burni-agari suaren egokitasantan ematen dizkion bezala. Jainkoa su kixkalgafia da: «Maite-labe gorria» (Lit. Sac. Cordis).

Ekin dezaiozun beraz, ekin dezaiozun azkarki gogozko otoitzari; eta ofek ezarian-ezarian santu egingo gaitu.

JESU KRISTO GURE EREDU EDO ERAKUSMEN

Gogartezko bizitza ontan, gure arimari tankera beña emateko lan ortan, zertara jo bear degu edo zer bilatu bear degu? Jesu Kristo, Jainko dan aldetik eta bai gizon dan aldetik ere, gure arimen erakusmen edo eredu ipintzea; ofela egia aterako da bigafen maila ontako berezgafi ura: «Bizi naiz, baiñan ez ni; Kristo bizi da nigan» (Gal. 2, 20).

Olako eredu edo erakusmen baten bear andia degu; zergatik? Gure arimaren bizitza Jainko-bizitza dan ezkeru, bizitza oferi indar emateko, Jainkoaren antzeko izaten saiatu bear degu alegin guzian.

Eta ez al da naikoa beste edozein kristau gure erakusmen, edo eredutzat artzea? Ez, dio Agustin santuak; begi aufflean dauzkagun gizonak eztira aski on gure erakusmen izateko. Ofegatik Jainkoaren Semea, betikoa, Aitaren

iduri bizia, gizon egin zan; eta bere esan-egiñekin erakutsi zigun nola, lufean bizi gerala, izan gaitezken Jainko guziz santuaren antzeko.

Eta izan ere kristautasuna zer da, Kristoren antzeko izatea baizik?

Egiazki, Paulo santuarentzat Kristo zan guzia, Kristo da bizitza. Lenengo aldietako kristauak ondo ulertzen zuten Apostolu andi arek irakasten zien ori; aiek bazekiten Jainkoak bere Seme bakar Jesu Kristo eman digula, guretzat guzia izan dedin; bazekiten Jainkoak grazia guziak Kristo baitan utzi dituela, guk bear degun guzia Arengan aurki dezagun.

Baiña kristau askok eztute ori burutan artu nai; beren gisa ibili nai dute, berak asmatu duten bidetik eta ez Jainkoak berexi duenetik; Kristoren ezkutua, Kristo guretzat zer dan eztute ulertzen; ezer balio eztuten zirtziñerietan galtzen ta nekatzen dira, eta gero neke guzi ortatik eztute ezer onik ateratzen.

Beste zenbait arimetan befiz, aldaketa afi-gafiak gertatzen dira batzutan. Arima oiek urte askoz estu estu ibili ziran, beren bidean nekerik asko aurkitu zuten, ezer gutxi auferatzen ziran, ots, *lagunabareko arimak* ziran. Baiña

Jainkoak ezaguarazi zien noizpait guretzat *Jesu Kristo dala guzia*, eta afezkero dana aldatu zan aientzat.

Azkar aufera egiteko auxe gogoan eduki beraz: Gure eredu ta erakusmen Jesu Kristo dala.

Jesu Kristo Jainko

Zertan dago gure santutasuna? Jainkoaren egiazko ume antzera bizitzean, Jainkoaren antzeko izatean.

Baiña ontan bada neke auxe: Guk gauza baten antza artzeko, begien afean eduki bear degu. Jainkoa eztegu ordea ikusten; «*Jainkoa eztu egundaiño iñork ikusi*» (1 lo. 4, 12); «*Ezin-urbilduzko argian bizi da Jainkoa*» (1 Tim. 6, 16); eta ikusten ezpadegu, nola artuko degu Aren antza?

Bai, ori egia da, Jainkoa eztegu ikusten; baiña Jesu Kristo ikusi degu ordea: «*Jainkoak bere burua erakutsi digu bere Seme Jesu Kristogan*» (2 Cor. 4, 6); «*Jesu Kristo Jainkoaren edertasunaren dirdira da*» (Hebr. 1, 3). Jainkoa lufeko itxuran agertu zaigu, guzien eskumendean egoteko ta guzien erakusmen izateko. Aitaren iduri bizia da Kristo.

Zertan izango da beraz Jesu Kristo gure erakusmen?

Kristo egiazko Jainko ta egiazko gizon da. *Jainko denez*, Aitaren Seme betikoa da; gu ere Jainkoaren ume gera, Arek bere graziaz alakotzat artu gaituelako. Alde ortatik, Kristo Jainkoaren ume guzior erakusmen da. Grazian parte-artuz egiten gera Kristoren antzeko.

Bai, gu ere Jainkoaren ume gera. Jesu Kristo berez, sortzez da Jainkoaren Seme, gu befiz graziaz; Jesu Kristo Aitagandik sortu dalako gu befiz Jainkoak seme-alabatzat artu gaituelako.

Geroztik, grazian bizitzea. Jainkoaren ume egiazko izatea, Argandik pekatuaz ez aldegitia: ori da Kristoren antzeko izateko lenbizi bear dan gauza, ortan da batez ere gure eredu ta erakusmen (C. Marmion).

Jesu Kristo gizon

Baiña Jesu Kristo gizon denez ere gure erakusmen izan bear da.

Izan ere, kristau-arima edertzen duten onbide guzieren jabe zan gure Jauna, bai gizon denez ere..

Bere Aitak begiratu eta zoraturik esaten

zuen: «Ori da nere Seme maite maitea; ofen baitan det atsegin osoa» (Mt. 5, 7); eta gero: «Ofi entzun zaiozue», Ori begien afean eduki ta Ofen antzeko izan zaitezte; zuen bidaufekoa da, zoazte Ofen atzetik; Bera da bidea, ifior ezin datorke Nigana bide ortatik baizik.

Gaiñera, Jesu Kristo gizon danez erakusmen zaigu, guk ikasi ta artu bear ditugun onbide guziak Arek bere esan-egiñetan erakutsi zituelako: Jainko-maitatzea, menpetasuna, gozotasuna, gogonai gartsua, erukia, otolizerako zaletasuna eta...

Ala ere, Kristoren al bait antzekoen izateko bide laburrena auxe da: Gure esan-egin guziak zeruko Aitagana zuzentzea, guziak Aren ederagatik egitea, Kristok egin zituen bezala; Ura bezala, Jainkoaren osperako bizitzea.

Baiña nola artuko degu Kristoren antz oso-oso ori? Aren esan-egin guziak jainkozkoak ziran beren zain ta itufian, Bera Jainko zalako.

Gu ordea ez gera Jainko; eta *ortan ere Aren antzeko izan ote gaitetzke?* Bai, bagaitetzke, grazia santugafiaren bidez Jainkoaren ume geralako Kristoren antzera. Ofegatik gure

esan-egin guziak isatez-gorako sail batera goratzen dira, jainkozko egifik gelditzen dira, ta lan jainko-iduriak deitzen ditugu.

Eta ortarako zer egin bear degu? Geren buruaz osotara erantzi, bilustu ta graziaren menpean utzi; *osotara Jainkoaren eskupean bizi*, Arek nai duenera jafi, degun on guzia Ari zor zaiola aitortu. Etsi-etsirik egon bear degu ontaz: Jainkoarekin bat-egitea geienik galarazten diguten zoztoak eztirala gure argalkeri ta ezerezkeriak, ez; arimak bere lan guzien jabetasuna beretzat gorde-naia, ori da eragozpenik andiena.

Jainkoak eztigu eskatzen gure burua eze-reztu dezagun; baiña bai dan-dana aiko-mai-korik gabe bere eskupean jafi dezagun. Orduan bai esan dezakegu zifiaz ta egiaz: «Bizi naiz, baiñan ez, gaurgero ez naiz ni bizi; Kristo bizi da ni baitan» (Gal. 2, 20), osotara Kristoren antzeko egin naiz ta.



**IRUGAREN MAILA = Betegiñak
(edo oso onak)**

IRUGAREN BIDEA = Bat-egiteko bidea

Berezagafia: Kristoren gorputz dan Elizaren onetan ikusten ari naiz nere aragian, Kristoren neke oraindik palta diranak (*Col. 1, 24*).—Kristoren gorputza eraikitzeko (*Eph. 4, 12*).

Bide-zatiak:

- A) JAINKO-MAITATZE ONBIDEA.
- B) ESPIRITU SANTUAREKIN BIZITZEA.
- C) APOSTOLUTZA.

Jardun-gaiak:

- 1) Gure lan ta esan-egin guziak izatez-goratu Jainko-maitatzearen bidez.
 - 2) Arima-bizitza Espiritu Santuari dagokion partea afarazi.
 - 3) Kristauai ondo burutan sartu, egiazko apostolutza barneko bizitza sendoaren fruitu ta ondore dala.
-

BAT-EGITEKO BIDEA

Bide au Jainkoarekin estuki ta sendoki baturik egotea besterik ezta. Kristau betegin edo oso onaren elburu ta azken-muga au da: Jainkoarentzat bizitzea; bai, gudan egotez dagoen Irutasun Santuarentzat, Ura goraiatzeko, zerbizatzeke, jauresteko, maitatzeko bizitzea.

Eta ori *Jesu Kristogan*, beti ta beti au esan al izateko: «*Aren bidez, Arekin, Arengan, ospe ta gorespen osoa baduzu zuk, Jainko Aita guzieldun oñek, Espiritu Santuarekin bategan*» (In canone missae). Kristoren bidez, Kristorekin, Kristogan, Jainkoaren osperako, goratzafe edo kantu bat izan galtezen, gure gogorapen, naitasun, esan ta egifietan.

Maiña gora ortara igotzeko, Jesusek bere irabazi ta otoitzekin *Espiritu Santua* bidaltzen digu; eta onek erakusten digun bidetik joanaz, guk gogoeta itz eta lan egiten degu, Jesu Kristok gure tokian egingo luken bezala.

Bat-egiteko bide ontan, arimak gelatxo edo etxola bat egokitzen du poliki bere biotz bafuan; or aurkitzen du beti Jainkoa ta arekin

izketan ari da biotzetik biotzera. Ofegatik maite du bakartasun ta ixiltasuna.

Bide onen ezaupide bere-berezkoa au da: Arima Jainkoarekin bat-egiteko, Ura maitatu ta Aren antza artzeko ajola ta alegifia.

Gaiñera beste gauza bat: Gizon egifia berretzat baiño geiago kristau lagunentzat bizi dan bezala, bereolaxe badirudi maila ontara iritxi dan kristaua bere buruaz aztu dala kristau arimen onari begiratzeko; ofegatik *arimai zerurako bidea erakusteko lanetan aritzen da*. Onbide ori ederki dagokio maila goren oneri.

Baldin arimak Jainkoaren zerbitzuan zintzo irauten badu, batez ere atsekabe ta estualdietan azkar egoten bada, onbide ta irabazietan aziaz joango da, ta bide ontatik atera gabe ere santutasun gorenera iritxi diteke.

Olako arima betegin edo oso onak Jainko-maitatzea daukate nausi beren gogorapen, naitasun, esan ta egifietan, guzia Jainkoa maitetz egiten dute; eta ortik sortzen da gero nork-bere burua osotoro Jainkoaren eskuetan uztea, Arengatik nekeak ikusi-naia, Aren ospea zabalatzeko ta arimak zeruratzeke ifika, gogo bizia.

Izan ere oiek dira maila ontako onbide nausiak.

JAINKO MAITATZEA

Jainko-maitatzeak ontasun baztergabe dan Jainkoarekin batu egiten gaitu; Jainkoa maitarazten digu baztergabe on ta berez maitagafi dalako; Jainkoaren adiskide egiten gaitu, eta ola Jainkoaren bizitza bera artzen degu, Ura maitatuz Berak bere burua maite duen bezala.

Jainko-maitatzeak beste onbideak baiño indar geiago du bat-egiteko ta itxura-befitzeko; ofegatik dago beste guzien gaiñetik.

Ori da gure santutasunaren neufia; guk Jainkoa maiteago, ta gure santutasuna andiago izango da; gure lan guziak Jainkoa maitez egiten baditugu, ario ortara auferatu ta geituko da gure arima-bizitza. Eta gerta diteke Sales'ko Frantzisko santuak diona: Jainkoa gartsuki maite duen kristau baten onbide txiki kaxkafak geiago balio dezake, Jainkoa epelki maite duen beste kristau baten martirioak berak baiño.

Jesu Kristo gure Jaunak, Nazaret'en gorde-

rik egon zan ogeitamar urte aietan, etzuen ezer andirik, jenden begiak bereganatzeko gauzarik egin; lanean, eta lan apalean jardun zuen.

Eta ala ere, lan apal ura ezin atsegiñago zitzaion Jainko Aitari. Zergatik? Len lenik, *lan aietan ari zana Jainkoaren Semea zalako*; ta bigafenez, *Jesus bere lanak albait ondoen egitera bai, baiña batez ere Jainkoaren osperrako ta Jainkoaren ederragatik egiten salatzen zalako*. «Nere Aitak nai duena, ez neronek nai dedana egitera jetxi naiz zerutik» (Io. 6, 38).

Eta ontan ere izan ote gaitezke Jesu Kristoren antzeko? Bai, bagaitezke.

Befiz ere badiot: Naiz gu ez geran sortzez Jainkoaren Seme, Jesu Kristo bezala, ala ere *graziaz Jainkoak bere umetzat artuak gera*.

Zeruko Aitak, gu bere grazian gaudela ikustean, gutzaz ere esan dezake bein Jesu Kristoz esan zuena: «Oña or nere seme edo alaba maitea!» (Mt. 3, 17). Esan ere egin zuen: «Nik esan det: Jainko zerate, eta guziok Gorenaren ume» (Ps. 81, 6). Eta Jainkoaren ume geran ezkeru, gure lanak Jainko-lanak dira, eta geroztik balio neufigabekoak, Kristorenak bezala (C. Marmion).

Jainko-maitatzez bizitza

Gure lanak, Kristorenak bezala, balio neurtigabea izan dezakete beste alde ontatik ere: *Asmo on ta zuzenez egiten baditugu, ots, guziak Jainkoaren ederagatik, Jainkoak nai duelako ta nai duen bezala egiten baditugu, geren buruari ta gure iritziari ta gure naiari ezetza emanik, zeruko Aitak nai duena baikirik egiten ezpadegu.*

Artu ditzagun bi kristau jainkotiar: Biok Jainkoaren grazian daude, biok bizitza berdintsua dute, biok iduriz lan beretan ari dira... eta alere batetik bestera bidasti andia dago; bat doi-doia igitzen da santutasun-bidean, bestea beñiz beti aufera ta aufera dioa.

Zergatik ezberdintasun ori? Jainkoaren graziagatik ote? Ez, biok berdin Jainkoaren grazian daude. Baiña batek Jainkoa sutsuki maite du, Jainko-maitatzez bizi da, Jainkoaren edefagatik egiten ditu lan guziak.

Besteak beñiz epelki maite du Jainkoa; siñestea badu, baiña erdiperdiko, afunteko, indar gutxiko siñestea, ez bear litzaken bezain bizi ta eraginkofa. Ofa or zergatik izan ditekene ain bitarte andia alkafen ondoan ta iduriz berdintsu bizi diran bi kristauen artean.

Guzia Jainkoaren edefagatik!

Ortara ezkerro, gure lan guziak Jainkoaren maitez egitea ajola andiko gauza da. Ofela, egunoroko eginkizunik afuntenak (jatea, loa, jolasa, jostaketa) Jainko-maitatze biurtuko dira eta bi aldetara irabaziko degu oiekin: bein berez gauza onak diralako, gero Jainkoa maitez egin ditugulako. Nork bere indafak befitzeko jatea gauza ona da ta zerurako ere irabazbidea; baiña Jainkoaren eta arimen alde lan geiago egiteko jan ta indar befitzea gauza edefago da, ori Jainkoa maitatzea da; eta asmo ofekin jaten duenak bere jate ori goratu egiten du, irabazbide andiagoa du ofela.

Gure naimen edo borondatea ain argala ta aldakoña da orde! Ofegatik gure asmo on oiek safitan befitu ta zuzendu bear ditugu; safitan esan bear diogu Jainkoari; Beraren edefagatik, Beraren osperako, Berari atsegin emateko egin nai ditugula gure lan guziak.

Itsas-ontzi bat Bilbotik Amerika aldera abiatzen danean, ezta aski ontzi-mutufa bein bakarik Amerikara begira jartzea; aizeak eta uraldeak makufarazten baitute, ontzi-maisuak safitan zuzendu ta dijoan tokira begira jafi bearko du.

Ori berori gertatzen zaio gure naimenari: Ezta naikoa bein ta betiko, ezta ere egunoro Jainkoari begira ipintzea. Grifia gaiztoak eta inguruko goraberak laster bide zuzen ortatik oker-arazten dute; ta maiz Jainkoagana zuzendu ta Jainkoari begira Jafi bear degu. Ofela gure eginkizun guziak izatez-gorako, zerurako baliodun, osotara bikain izango dira beti.

Ontan agiri da garbi Jainko-maitatze ofen goratasuna; ori da gugan daukagun Jainko-bizitzaren neufia: guk Jainkoa maiteago, ta Jainko-bizitza gugan sendoago. Ta Jainko-bizitza auxe besterik ezta: Gure egiteko guziak Jainkoaren edefagatik egitea, Jesu Kristok ere bereak egin zituen bezala.

ESPIRITU SANTUAREKIN BIZITZEA

Jainko-maitatzeari eusteko ta iraun-erazteko ezer ezta ori baiño egokiagorik: Espiritu Santuarekin bizitzea.

Amaika kristauak ez tute ori izenez baizik ezagutzen, eta ezakite zer lan egiten duen gure arimetan.

Ez gero aztu len esana: Guziok gorputz bat gera Kristorekin, ta gorputz onen arima Espiritu Santua da (Eph. 4, 4).

Espiritu ori gure ariman bizitzea ain bea-
fezko da, ta Paulo santua ezta kupide au esatera: «Iñork Kristoren espiritua ezpadu, ori ezta Kristorena» (Rom. 8, 9).

Espiritu Santua artu bear degu; bestela ez gera «Kristorekin bat», Espiritu Santua beti Kristogan bizi baita.

Zer esan zien Jesusek Apostoluai azken arian? Bera zerura igo ondoan, Espiritu ori bidaliko ziela «*bere orde z alekin egotera*».

Bai zifiez Espiritu Santuak gure arimetan egiten duen lana *ezkutua* da, baiña bai *afigaría* ere.

Espiritu Santua ola deitzen da santutasuneko Espiritua dalako; *Santua da bere baitan* eta bai *santu-egilea* ere.

Arimen santu-arazteko lana Espiritu Santuari ezartzen zaio bereziki.

Iru Jainko-Personak, Jainko bakar bat baitira, iruak alkafekin egiten dituzte lufean gertatzen diran guziak, ez Aitak au, Semeak ori Espiritu Santuak ura... ez, iruak dana. Baiña ala ere, Jainkoak nai du guk Bera ezagutu ta goretsi dezagun ez bakarik Jainko bat danez, baita iru Jainko-Personak bat-banaka ere. Ofegatik naiz lan oiek iruenak izan, Persona banari ezartzen dizkiogu: olako lana Aitari, olakoa befiz Semeari, bestea Espiritu Santuari.

Eta Espiritu Santua zer da Irutasun Santuaren bafuan? Jainkoak bere bafuko bizitzan egiten duen lanaren azken-muga edo bukaera. Ona emen Jainkoak bere baitan egiten dituen lanak: Aitak, bere burua ezagutuz, Semea sortarazten du; gero Aita-Semeak, alkar maitatuz aterazten dute, arnas antzera, Espiritu Santua; eta ofekin bukatzen da Jainkoak bere baitan

egiten duen lana. Aita-Semen alkar-maitatzea, maitatze baztergabea: ori da geroztik Espiritu Santua Irutasun Santuaren bafuan.

Ofegatik len esan deguna: Arimen santu-arazteko, oso bikain egiteko lana ta Jainko-maitatzeari begiratzen dion guzia, Espiritu Santuaren gain ezartzen da bereziki; maitatzea ta maite-lanak Berari dagozkio.

Ebangelioetatik dakigunez, Kristoren arima ere, Espiritu Santuak argitu ta eragifilik, egiten zituen bere lan guziak: Espirituak eraman zuen Jesus basamortura, deabruak an zirika zezan; Espirituak esan zion gero Galileara itzultzeko; Espiritu ofen indafez erauzten zituen deabruak kristauen gorputzetatik. Eta Paulo santuak dionez, Jesu Kristok guretzeko oparia ere Espiritu beforek bultzaturik eskeifiri zuen; ots, Kristok gizon zanez egiten zuen guzia Espiritu Santuak zuzentzen zuen.

Elizaren arima

Geroztik, ajola andiko gauza zaigu Espiritu Santuak Elizan zer lan egiten duen ikusi ta ezagutzea.

Elizaren *Buru* Kristo bada, Espiritu Santua da *arima*. Pentekoste egunean Espiritu Santua

sartu zan Elizan, *Kristoren gorputz mistikoan*; eta andik onuntz Espiritu Santua mintzo da Elizaren aotik eta aren aitormena siñets-arazten du (Irakastea); Berak indar ematen die Sakramentuai, bakar bat ere ezpaita ematen, aufetik Espiritu Santuari otsegin gabe (Indafa); Berak, mezako sagaran, ogi ta ardoa Jesu Kristoren aragi ta odol biurtzen ditu (Bizitza)...

Bai, egiazki sakona ta etengabea da Espiritu Santuak Elizan egiten duen lana. Zuzenez deitzen du Paulo santuak: *Bizitzeko Espiritua*.

Otegatik mezako Kredoan Espiritu *bizi-emalea* deitzen degu, Elizaren arima dalako. Eta arimak gure gorputzari bizia ematen dion bezala, Espiritu Santuak ere bizia ematen dio beste gorputz oneri, indartzen ta edertzen ditu alderdi guziak.

Santutasun ororen oisñafi, santu izateko lenengo bear dan gauza grazia da, Jainkoaren uime egiten gaituen grazia.

Grazia ori bataioan gure arimetara ixuri zan ezkeru, Espiritu Santua guban bizi da Alta-Semeekin.

Eta zer ari da Espiritu Santua gure ariman? Gure izatea goratzen du Jainko-izatean parte artzeraiño, izatez-gorako lanak egiteko

egokitzen du; gure arimaren almenak izatez-gorako mailara jasotzen ditu, bear diran indar ta oitura onak oietan ipiñiaz; ortik datoz *izatez-gorako onbideak*, batez ere iru jainkozkoak: *Sifieste, itxaropen* ta *Jainko-maitatzea*, Jainkoaren umeen onbide berezgafiak.

«Gorputza bizi da arimarekin baturik dagoenean; orobat arima bizi da Espiritu Santuarekin baturik dagoenean (S. Aug. sermo 187 de tempore).

Iritzi ori sendortu zuen XIII'garen Leon Aita santuak arako itz aiekin: «*Kristo Elizaren buru bada, Espiritu Santua da arima*» (Enc. Divinum illud munus, 9 Mai 1897).

Kristoren ta Espiritu Santuaren bi lanbide oiek eztute alkar eragozten; alkar lagundu ta osotu egiten dute. Nola?

Begira, kristau guziok osotzen degun gorputz mistiku onen buru Jesus gizon danez bakafik izan diteke; zergatik? burua ta gorputza mota berekoak bear diralako: Gizon-gorputzari gizon-burua dagokio. Bestaldetik befliz, Kristok, gizon danez, ezin eman dezake gorputz-aldeak bizitzeko bear duten grazia; zergatik? Grazia ori Jainkoaren gauza dalako, eta Jainkoaren gauza Jainkoak eman bear du.

Eta Espiritu Santua Jainko baita, Aita-Se-mengandik maite-bidez datofen Persona baita, ofetxek egiten du arimen artean grazia banatzeko lan ori. Baiña banatze ori ere Jesusen irabaziai ta otoitzari esker egiten duelako, ben-benetan au esan diteke: Biziaren itufia Jesusengandik sortzen da, gero gorputz osora zabaltzeko. Eta egiazki, guk artzen ditugun zeruko emaitza guziak banatu, Espiritu Santuak egiten ditu; baiña oiek gureztat irabazi, Jesusek egin zituen (Tanqueray, Élites).

Espiritu Santuaren emaitzak

Egia guziz eder ortaz etsi-etsirik gaudela, bai jaiera andia izan bear geniokela Espiritu Santuari! Eta Arekin zein estuki baturik bizi bear genuken!

Nolako afetaz ta zein gogotik eskatu bear genituzken Espiritu ofen zazpi emaitzak:

Zuurtze-emaitza, lufeko gauzai nazka ta zerukoai gozo artzeko, egiazko jaieraren gozoa, ez goxokeri utsezko jaiera...

Adimen-emaitza, sifisten ditugun egiak bafentzeko, Liburu santuetako itzak Espiritu ofen argiz ondo ezagutzeko;

Aolku-emaitza, aldian-aldian zer egin bear

degun jakiteko; Paulo santuak bezala «Jauna, zer nai dezu nik egitea? galdetzen degunean, Jainkoaren erantzuna aditzeko;

Indar-emaitza, gure argalari laguntzeko; gogorik onena izanagatik, gu oso makal ta erorkor baikera, Jainkoak eskatzen diguna egiteko zeruko indafa bear degu;

Jakite-emaitza, lufeko gauzak zeruko begiz ikusteko, Jainkoaren ume orok ikusi bear di-tuen bezala; gogoratuaz Jainkoaren esku-lanak dirala, eta aietan ezer onik eta edefik badago, Jainko guziz eder ta bikaiñaren dirdira baizik eztirala;

Jainkozale-emaitza, Jainko gure Aitaren alderako eginbideak zuzenki betetzeko: Jainkoa maitatzeko, Argan uste izateko, gure burua osoki aren eskuetan uzteko, ume antzera Arekin mintzatzeko;

Jainko-beldur-emaitza, baiñan ez beldur kaxkar, zigofaren beldufa; Jainko-beldur ona, ume onak aitari dioten lotsa ta beldufa, ainge-ruak zeruan Jainko guziz santuari erakusten dioten lotsa ta beldufa, Jainkoari «Nere Aita!» esatea galarazten eztigun beldufa.

Goazen bada maiz Espiritu Santu oferi otoitz egitera; bataioa ezkeru gu baitan bizi da

Jainkoaren grazian gauden arte. Eliza Ama Santuaren erakutsiari jafaikiaz, esan dezaio-gun safitan Pentekoste eguneko mezan kantatzen dan bertso eder ura:

- 1) Atoz, oi Arnas Santu,
ta zure argi-izpi bat
zerutik bidal zazu.
- 2) Atoz, beafen Aita,
atoz, doai emale,
atoz, biotzen argi.
- 3) Zu Poz-emale bigun,
arimen etxelagun,
zu neken ezti gafi.
- 4) Atsedean lan-aldian,
ozkiro sargorian,
negafean poz gafi.
- 5) Argi guziz doatsu,
zure sifistedunen
biotzak bete-zatzu.
- 6) Zure laguntza gabe
gizonak onik eztu,
eztu onik bat ere.
- 7) Loi dana garbi zazu,
legor dana ezatu,
gaixo dana sendatu.

- 8) Bero zazu otz dana,
bigundu gogor dana,
zuzen makur doana.
 - 9) Zure sifiestedunei,
zuga uste dutenei
eman zazpi emaitzak.
 - 10) Eman onbide-sari,
eman zeruko argi,
eman betiko pozak. Ala-biz.
-

APOSTOLUTZA

Zer da apostolutza, beste arimen onetan lan egitea? Nork bere bafuan daukan bizitza, kanpo aldera edatzea, zabaltzea.

Au da erakutsi nai nizun zuzenbidearen azken ondorea: «Kristok oraindik ikusteko dauzkan nekeak nere aragian betetzen ari naiz, bere gorputza dan Elizaren onetan» (Col. 1, 24); «Kristoren gorputza eraikitzeko» (Eph. 4, 12).

Baiña bein ta betiko etsi dezagun ontaz: Apostolu izatea ezta indafa, ez kanpoko lan andia, ez buru argia, ez itz-etofi ugaria, ezl eztago olako gauzetan egiazko apostolu izatea. Egiazko apostolua jainkozko arima da, Jainkoaz betea dagoen arima, batzutan lasto pixka edo ondar-ale batean, gizon ezerez batean gorderik dagoena.

Zer da apostolua? Ofen befi ondo zekien batek diona: «Edat-ontzi bat, gailneraifio Jesus ez betea egon ta gailnez egitean Jesus ori arimai eman egiten diena» (P. Crawley).

Ori da apostolu izatea, ez besterik... Ezki-
iak dinbi-danba jo bai, ots andiak atera ta oi-
u andiak egin bai, jendea pilaka bildu ta itz
edefez zorarazi bai... baiña oñekin afiak eztira
biguintzen, bekatariak eztira onera biurtzen.
Bestaldera befiz, Jesus batek edo Jesusen an-
tzeko apostolu batek itz bakar bat esan orduko,
afi gogofenak Pedro biurtzen dira, ta Saulo
gaiztoak Paulo santu.

Kanpoan lan andia egin, joan-etofi asko
ibili, bafengo bizitza-gabeko apostolu izan?
Ori utsa da, ori bufunbaka ari dan ezkiia izatea
da, besterik ez.

Kristau izatea beste Kristo bat izatea da;
apostolu izatea Kristo dirdai-araztea da.

Gaiñera, apostolu izatea *zor bat, eginbear
bat da*, ezta norberak egin edo utzi dezaken
gauza. Aberats ta beartsuen artean gertatzen
dana: Aberatsak bere diruak eztitu beretzat
bakafik, besteai laguntzeko ta on egiteko ba-
liatu bear du oietaz. Eta aberatsak ori egiten
ezpadu, aren zoritxafekoa! Bere diru oiek za-
palduko du nolzpait.

*Ori berori egin bear dute bada ariman
aberats diranak ere*; beren bafengo ondasun
oiek beste kristau-lagunai banatu, besteai ze-

rurako bidea erakutsi ta artan ondo ibiltzeko eskua eman; besten onetan egiten duten lan ori, zerura egatzeko ego-pare bat izanen zaie berai ere.

Eta Jainkoaren afobi ontan ezta gero zortzi orduko egunik, ez befogeila-zortzi orduko asterik, ez noizean bein opor egiterik; emen beti lanean jardun bear degu, bein ere atertu gabe.

Apostolutza Kristoren irabazpide edo salerostetxea da, eta gu salerostetxe ofen befi-emale gera. Zubi bat, lufetik zerurako ta zerutik luferako zubi bat egin bear da; Kristo da zubi ofen egilea, Kristo bera da zubi ori: «*Ego sum via*» (Io. 14, 6).

Eta apostolutza au besterik ezta: arima guziak zubi ortara, Kristogana joan-araztea (P. Crawley).

AZKEN ITZA

Santutasun osoa zeruan baizik eztegu iritxiko; an bai, Jainkoa utsik gabe ta galtzeko beldufik gabe maitatuko baitegu. Baiñan lufean gauden arte ere iritxi dezakegu kristau betegune edo santutasuna, bai goren-gorena ta zerukoaren antz-antzekoa ere. Nola? Liburutxo ontan erakutsi dan bideari jafaikiaz.

«Bai, dio Krisostomo santuak, gerta diteke lur beere ontan bizi diran kristauak zeruan baleude bezala egitea beren lan ta eginkizunak».

Ala ere, bizitza ontan inor ezta ain santurik, santuago ezin egin ditekenik. Egia da, Jainkoak guretako bakoitzari aufetik berezi ta mugatu dio zein santutasun-mailara jaso nai duen, batzuek alde batera, besteak bestera (1 Cor. 7, 7). Guk ezpaitakigu ordea zein dan maila ori, gerentzat artu bear ditugu arako Apokalipsis Liburu santuko itz aiek: «Santu dana santuago bedi» (Ap. 22, 11); eta Paulo santuak bezala esan bear degu: «Santutasun osoa eziet

oraino iritxi, baiña aren atzetik noa, ea nolazpait ere irixten dedan» (Philipp. 3, 12).

Kristau maitea:

Ofa or bada arima-bizitzan auferatzeko begien afean ipintzen dizudan zuzenbide edo araua. Oso zelai efaza da, baiña on egingo dizula nago.

Irakur zazu, gogoan iraul zazu. Ezta aski bein bakarik irakurtzea, ori gutxi litzake, ofek ez lizuke ezer balioko.

Ezkutu sakonak, jainkozko gogoetak daude liburutxo ontan; maiz ta safitan, befiz ta befiz gogoan erabili ta ausnartu bear dituzu, orduan bai sortuko dufe frutu ona.

Saia zaitte beraz apaltasun andirekin Jainkoaren asmoak bafentzen, eta zure biziera asmo oien arabera egiten.

Zure ezbai-aldi ta ilun-orduetan jo zazu zure arimaren zuzentzaileagana; arek argi emango dizu, bidea garbituko dizu; eta ola, Jainkoaren graziarekin sartuko zera bete-betean Jesu Kristok gure arimen santutzeko erakutsi digun zuzenbidean.

AURKI-BIDEA

	<u>Of.</u>
Aurferko itza	5
Gure santu-egitea (Jainkoaren asmoa) .	11
Iru santutasun-mailak.	31
Garbitzeko bidea	36
A) Bekatu lafia ta bai arifia ere kendu	39
B) Sakramentuak maiz eta zentzuz artu	51
C) Gogozko otoitza egiten asi	55
Argitzeko bidea	62
A) Sifieste ta itxaropen onbideak . .	71
B) Gogartezko bizitzea.	77
C) Jesu Kristo gure Erakusmen . . .	79
Bat-egiteko bidea	86
A) Jainko-maitatze onbidea	88
B) Espiritu Santuarekin bizitzea . .	93
C) Apostolutza	00
Azken itza	100

